

Euskadin 

Inbertitzea

2009

Eusko Jaurlaritzako Herri-Baltzua

spri 



spri

Industriaren Sustapen eta  
Enkainamenduak Bilakaia, S.A.  
Sociedad para la Promoción  
y Rotación Industrial, S.A.

Alda. de Urquijo, n.º 36, 4.ª Planta  
48011 Bilbao-Bizkaia-España  
Telf.: + 34 94 403 70 00 / 56  
Fax: + 34 94 403 70 22  
E-mail: [info@spri.es](mailto:info@spri.es)  
<http://www.spri.net>



Euskadin

Inbertitzea 

2009

# Aurkibidea

## WEB bertsioa

<b>1</b>	<b>FAEko: Egitura Politiko, Administratibo eta Ekonomikoa</b>	<b>8</b>
	· Geografia eta Klima	8
	· Biztanleria: Tamaina eta Dentsitatea	10
	· Egitura Politikoa	10

<b>2</b>	<b>Sektore Nagusiak</b>	<b>12</b>
	· Industria	12
	· Merkataritza eta Turismoa	14

<b>3</b>	<b>Kanpo-Merkataritza</b>	<b>16</b>
	· Enpresa esportatzaileak	16
	· Kanpo-inbertsioa: Legeria	16
	· Atzerriko Enpresek EAEko Enpresetan Egindako Inbertsioak	18

<b>4</b>	<b>I+G eta Azpiegitura Teknologikoa</b>	<b>20</b>
	· Parke Tecnológicoak	22
	· Bizkaiko Parke Tecnológicoak	23
	· Arabako Parke Tecnológicoak	23
	· Miramongo (Donostia)ko Parke Tecnológicoak	24
	· Arrasateko Parke Tecnológicoak (Garaia Gunea)	24
	· Telekomunikazioak	25

## 5

### Industria-jarduerekin Zerikusia Duten Zerbitzuak

	26
· Merkataritza Ganberak	26
· Cluster Sektorialak	26
· EAEko Lehiakortasun Institutua	26
· Finantza eta Aseguruaren Sektorea	27
· Bilboko Burtsa	28
· Azpi-kontratazioa	28
· Biltzar-aretoak	28
· Bilbao Exhibition Centre	30
· Inbertsioei Laguntzeko Panoramaren Ikuspegi Orokorra	30

## 6

### Bizi-kalitatea

	32
· Osasun-zerbitzuak	32
· Kultura eta Ohiturak	33
· Turismoa	34
· Aisialdia eta Kirolak	35

## 7

### Heziketa-Zentroak

	36
· Unibertsitateak	36

## 8

### Lan-Harremanak

	40
· Kontratazio-formulak	40
· Bitartekaritza-enpresak	40
· Sindikatuen Ordezkaritza	40

## 9

### Azpiegiturak / Logistika

	42
· Errepideak	42
· Trenbideak	42
· Itsas Portuak	44
· Aireportuak	44
· Logistika-zentroak	46
· Industria-azpiegitura	47

## 10

### Inbertsioei eta Eragiketei Loturiko Kostuak

	48
· Lokalizazio-kostuak	48
· Hornidura-kostuak	48
· Lan-kostuak	50
· Garraio-kostuak	50
· Zerga-sistema eta Finantzazio-sistema	52
· Sozietateen gaineko Zerga	53
· Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)	58
· Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)	58

## 11

### Inbertsioetarako Laguntzak

	62
· Inbertsioetarako Laguntzak	62
· Sozietateen Eraketa	62
· Merkataritza Arloko Legeria	63
· Ekonomia Sozialeko Enpresak	64

## 12

### SPRIren Nazioarteko Sarea

	66
--	----



## ➤ EAEko: Egitura Politiko, Administratibo eta Ekonomikoa

Dituen baldintza geografiko, sozial, kultural eta ekonomikoei esker, oso bizi-baldintza atsegineko erkidegoa da EAE. NBEk argitaratzen duen Giza Garapenaren Indizean munduko hirugarren erregioa da EAE. Indize horrek datu hauek hartzen ditu erreferentzia gisa: jaiotzean dagoen bizi-itxaropena, helduen alfabetatze-tasa, hezkuntza-maila eta diru-sarrerak. EAE, Espainia eta Europa alderatuz gero, oso emaitza onak ditugu adierazle hauei dagokienez: langabezia-tasa, biztanle bakoitzeko errenta, BPG-ren hazkundea, I+G+b-ko inbertsioak eta teknologia berrien aldeko apustua. Horrekin batera, finantza-sektore sendoa eta eraikuntzan baino gehiago industrian oinarritutako banaketa sektoriala dugunez, egoera hobean gaude oraingo abagune ekonomikoari aurre egiteko, eta mundu-mailan zabalduko omen den krisialdia gauzak egiteko aukera izatea nahiko genuke.

### Geografía eta Klima

Euskal Autonomia Erkidegoak 7.235 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Kokapen pribilegiatua du Espainiako Estatuaren iparraldean, bertatik berehala iristen baita Europako herrialde garrantzitsuenetara. Bizkaiko Golkotik gertu dagoenez, klima atlantikoa du kostaldean eta kontinental barrualdean.

Temperatura atsegina du, beraz: 14,7 gradu zentigrado batz beste urtean zehar, otsaileko 7,3 graduetatik eta uztaileko 21 graduetarako temperatura-tartearekin.

Muturreko tenperaturak ez dira oso arruntak, eta neguak nahiz udak atseginak izaten dira.

Distantzia Bilbotik errepidez		
	Km-tan	Miliatan
Bartzelona	622	377
Brusela	1.200	727
Bordele	361	219
Lisboa	800	485
Londres	1.200	727
Madril	400	242
Paris	900	545
Valentzia	626	379

Argazki orokorra	
Azalera	7.235 Km2
Biztanleria (*)	2.157.112 (Espainiako Estatuko populazioaren %4,7)
Biztanleriaren dentsitatea (*)	298 biztanle / Km2
Hizkuntza ofizialak	Euskara eta gaztelania
Hiriburuak	Bilbo, Donostia eta Gasteiz
Aireportuak	Loiu, Hondarribia eta Foronda
Portu nagusiak	Bilbo eta Pasaia
Parke teknologikoak	(4) Bizkaia, Miramon, Miñao eta Garaia
Medikuak	502,0 ehun mila biztanleko
Kirol-instalazioak	3.218
Ikasleak irakasle bakoitzeko	8,3ko ratioa (Bigarren Hezkuntzan)
Eskolatze-tasa (16 urte)	%90,5

*Iturria: EUSTAT, INE eta guk egindakoa. 2008 ko (\*) eta 2007eko datuak.*

	Euskal Autonomia Erkidegoa	Espainiako Estatua
1900	603.596	18.617.956
1940	955.764	26.187.899
1975	2.072.430	36.026.319
1986	2.133.002	38.818.355
2.003	2.112.204	42.717.064
2.004	2.115.279	43.197.684
2.005	2.124.846	44.108.530
2.006	2.133.684	44.708.964
2.007	2.141.860	45.200.737
2.008	2.157.112	46.157.822

*Iturria: INE*

Ekonomiaren argazkia	
Barne-produktu gordina - BPG	65.928 milioi euro
BPG biztanleko	30.599 euro
BPGren hazkundea (2007/2006)	%6,7
Biztanleria landunaren banaketa, sektorearen arabera (*)	
· Nekazaritza / Arrantza	11.900
· Industria	251.600
· Eraikuntza	77.900
· Zerbitzuak	630.000
Energiakoak ez diren esportazioak	17.362 milioi euro
Energiakoak ez diren inportazioak	13.104 milioi euro
Energiaz kanpoko merkataritzako balantza	4.258 milioi euro
Ikerkuntza eta garapena (BPG-eko %)	%1,65
Enpresek egindako I+G (BPG-eko %)	%1,34

*Iturria: INE, EUSTAT eta guk egindakoa. (\*) 2008eko, eta 2007ko datuak.*


## Biztanleria: Tamaina eta Dentsitatea

EAEk 2.157.112 biztanle ditu, eta %42 inguru Bilbo Handian bizi dira (Bilbon eta Nerbioi ibaiaren ertzeko herrietan). Biztanleria-dentsitatea km<sup>2</sup>-ko 298 pertsonakoa da, Europako batz bestekoaren gainera eta herrialde garatueneren parean. Biztanleriaren %65 baino gehiago 16-65 urte bitarteko adinartean dago eta 2008ko amaieran 1.007.000 lagunek zeukaten lana. EAEko hiru hiriburuek 180.000 biztanle baino gehiago dituzte. Azken datu ofizialen arabera, EAE zen, Madrilekin eta Nafarroarekin batera, biztanleko errenta erabilgarri handiena zuen autonomia-erkidegoa, Espainiako Estatuko batz bestekoa %30ean gaituz.

## Egitura Politikoa

EAEk bere legebiltzar propioa dauka, bertako foru-erakundeek biltzen dituzte zerga garrantzitsuenak eta autonomia handia dauka alor hauek zuzenean gobernatu eta kudeatzeko: ogasuna eta zerga-bilketa, industria eta ekonomiaren sustapena, garraioak, etxebizitza, ingurumena, hezkuntza, osasuna, ordena publikoa, etab.

Finantza eta zerga alorrean Espainiako Estatuarekin ditugun harremanak urte anitzeko hitzarmen baten bidez arautzen dira. EAEk bere administrazio-antolakuntza propioa dauka eta antolakuntza hori oso eraginkorra da, Espainiako Bankuak 2008ko bigarren hiruhilekoari buruz emandako datu ofizialen arabera, EAE baita BPG-ren gaineko zorpetze txikiena duen autonomia-erkidegoa (%0,7), batz bestekoaren (%5,9) oso azpitik.



### EAE Espainiako Estatu osoaren aldean





Biztanleria	BPG	Esportazioak	Industria sektorearen fakturazioa	I+G-ko gastua
4,7%	6,2%	10,7%	10,7%	9,1%
2008	2007 (est.)	2007	2007	2007

*Iturria: INE, EUSTAT eta guk eginda.*

### Industria-ekoizpenaren indizea (urte arteko tasak)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008 (kalk.)
EAE	1,7	-1,0	2,1	3,7	2,6	4,9	4,4	-0,3
AEB	-3,4	-0,1	1,2	2,5	3,3	2,2	1,7	0,0
Japonia	-6,6	-1,3	3,0	4,8	1,5	4,2	2,9	0,5
EB-25	0,3	-0,4	0,7	2,4	1,3	3,9	3,3	0,8
. Espainia	-1,4	0,1	1,4	1,6	0,8	3,9	1,9	-4,0
. Erresuma Batua	-1,5	-1,7	-0,7	0,9	-1,1	0,7	0,4	-0,8
. Alemania	0,2	-1,1	0,4	3,0	3,3	5,9	6,1	2,7
. Frantzia	1,3	-1,2	-0,2	1,8	0,3	0,9	1,4	-0,2
. Italia	-1,0	-1,4	-0,6	-0,3	-0,9	2,5	-0,1	-2,3

*Iturria: Eurostat, INE (Espainia), EUSTAT (EAE), Ekonomia Ministerioa (AEB, Japonia).*



## Euskal Enpresak European Quality Award EFQM'ko sarietan

SARITUTAK	NOMINATUTAK
ASLE	Fagor Electrodómicos S. Coop.
Colegio Ursulinas de Vitoria	Gaiker Centro Tecnológico
Euskalit	Lauaxeta Ikastola S. Coop. (2004)
Fundación Novia de Salcedo	Lauaxeta Ikastola S. Coop. (2006)
Hospital de Zumárraga	NORBOLSA S.V.B.S.A.
Irizar S. Coop.	Fundación Novia de Salcedo (2003)
Microdeco S.A.	
Soc. Coop. De Enseñanza Colegio Vizcaya	

## ► **Sektore Nagusiak**

Badira 100 urte baino gehiago EAEk Espainiako Estatuko industria-kontzentrazio handienetarikoa duela; ondorioz, Europako Ardatz Atlantikoko finantza-gune garrantzitsuenen artean dago. 2007an, Espainiako Estatuko osoaren %10,7 EAEn sortu zen, biztanle-kopuruaren (%4,7) eta hedadura geografikoaren (%1,5) arabera dagokiona baino askoz gehiago.

### Industria

Industria-ekoizpena dibertsifikatuta dago, baina metalgintzako jarduerak oso esanguratsuak diren arren (makina-erreminta eta altzairugintza), BPGn toki garrantzitsua duten bestelako sektoreak ere badaude: kimika, petrokimika, eta findegiak. Teknologia berriak eta I + G-ko jarduerak garrantzi handia hartzen ari dira, teknologia-parkeak bezalaxe. EAEko enpresek kapital-eta kontsumo -ondasunak nahiz bitarteko produktuak ekoizten dituzte, eta industria-egitura dibertsifikatu horri esker EAEko ekonomiak Espainiako batez bestekoak baino aberastasun erlatibo handiagoa sortzen du eta langile bakoitzeko hazkunde-tasa handiagoa du.

Bestalde, EAEko enplegua %30 baino gehiago hazi da azken hamar urteotan, eta langabezia-tasa asko murriztu da: 1995ean, %21,7 zen, eta 2008an, aldiz, %3,5. Espainiako Estatuko batez bestekoa, berriz, 1995eko %18,4tik 2008ko %11,4era jaitsi da. Horrela, EAEk izan du, Madrilekin eta Kataluniarekin batera, Europako enplegu-sorkuntzarik handiena, 1995-2005 bitartean.

Saltokiak		
	SALTOKIAK	LANPOSTUAK
Motordun ibilgailuen eta motozikleten salmenta, mantentze-zerbitzua eta konponketa	3.907	15.865
Bitartekariak	4.306	6.192
Handizkako merkataritza: nekazaritzako lehengaiak eta bizirik dauden animaliak, edariak eta tal	2.579	12.387
Handizkako merkataritza: elikagaiak ez diren produktuak	2.205	9.039
Handizkako merkataritza: nekazaritzakoak ez diren produktu erdi-landuak, txatarra eta hondaki	2.310	11.448
Handizkako merkataritza: makinak, ekipamenduak eta beste.	2.180	11.305
Txikizkako merkataritza: saltoki ez berezia.	1.828	16.862
Txikizkako merkataritza: elikagaiak, edariak eta tabakoa, saltoki espezializatueta.	8.209	13.704
Txikizkako merkataritza: sendagaiak, artikulua medikoak eta edergintza eta higieneko artikulua	1.951	5.297
Bestelako txikizkako merkataritza: salgai berriak saltoki berezietan.	17.942	39.205
Txikizkako merkataritza: bigarren eskukoa eta konponketak.	3.285	5.537
<b>Guztira</b>	<b>50.702</b>	<b>146.841</b>

*Iturria: EUSTAT (2007)*

Turismoa EAEn			
	2008	2007	Aldaketa (%)
<b>Hotel-establezimenduak</b>			
· Sarrerak	2.020.446	2.093.346	-3,5
· Ostatu-gauak	3.789.563	3.956.867	-4,2
<b>Landa-turismoko establezimenduak</b>			
· Sarrerak	112.341	108.163	3,9
· Ostatu-gauak	326.158	324.493	0,5

*Iturria: EUSTAT (2009)*

EAEko biztanleak atseginak, adeitsuak eta langileak dira, eta ezagunak dira betidanik teknologia berriak eta ekoizpen-sistema berritzaileak barneratzeko erraztasunengatik, bai eta ekimenerako duten senagatik ere. Enpresa txiki eta ertainek laguntzarako industria plurala bezain dinamikoa osatzen dute, eta konpromiso sendoa daukate kalitatearekin. Gaur egun, 5.500etik gora enpresak eta erakundek dauzkate ISO 9000 eta 14.001 agiriak, eta 14 EFQM sari jaso dituzte EAEko enpresek. Enpresa handiagoentzako azpi-produktuak egiten dituzten enpresa txiki horietako batzuk beren sektoreko enpresa garrantzitsuenak dira, eta enpresa txiki horiek osatzen duten sarea da EAE inbertitzeko leku aproposa bihurtzen duten alderdi erakargarrietakoa.

## Merkataritza eta Turismoa

Batik bat industrian errotutako ekonomia izan arren, beste sektore batzuek garapen handia izan dute azken urteotan. Horixe da merkataritzaren kasua, garrantzia handikoa baitugu. Turismoak ere gero eta pisu handiagoa du EAEko ekonomian. EAE helburutzat duten joan etorriak oso positiboak dira gaur egun ere, eta 2007 urtea EAEko turismoak historian izandako urte onena izan da.

Gehien esportatzen duten sektoreak	
Automobilak eta bere osagaiak (pneumatiko berriak barne)	
Petrolio-olioak eta eratorriak	
Hodiak eta profil hutsak (soldadurarekin eta gabe)	
Txorrotak eta antzekoak	
Burdinezko eta altzairuzko barra eta profilak	
Pertsonak eta salgaiak garraiatzeko itsasontziak	
Aireko nabigazioko aparatuen zatiak	
Trenetako bagoiak eta bidaiarientzako kotxeak	
Esku-erremintetarako lanabesak	
Papera eta kartoia	
Aluminioaren eratorriak	


Iturria: EUSTAT 2007

Atzerrian finkatuak EAEko enpresak	
FINKATUTAKOAK	
EKOIZPEN-ENPRESAK	485
FABRIKAK ATZERRIAN	267
MERKATARITZA-ORDEZKARITZAK	1.032
EAEKO TALDE MULTINAZIONALAK	70

Iturria: Civex eta Eustat 2007




Iturria: EUSTAT 2007



Iturria: Eustat 2007 (aurrerapena), Eurostat 2007 (aurrerapena) eta guk eginda.


Esportazioak - Energiakoak ez diren Inportazioak	EAE		Espainia	
	ESPORTAZIOAK	INPORTAZIOAK	ESPORTAZIOAK	INPORTAZIOAK
	17.362	13.104	176.290	242.491

Iturria: EUSTAT eta Industria Ministerioa 2007 (aurrerapena). Miliola euro.



Gehien esportatzen duten enpresak	
ENPRESA	LANPOSTU KOPURUA
ACERIA DE ALAVA	149
ACEROS INOXIDABLES OLARRA, S.A.	455
ALCOA TRANSFORMACIÓN, S.A.	598
ARCELOR BERGARA, S.A.	301
ASTILLEROS BALENCIAGA	98
AYA AGUIRRE Y ARANZABAL, S.A.L.	25
BABCOCK POWER ESPAÑA, S.A.	1.264
BRIDGESTONE HISPANIA, S.A.	1.704
CARBUREIBAR, S.A.	249
CELAYA EMPARANZA Y GALDOS	206
CONSTRUCCIONES NAVALES DEL NORTE S.L.	500
COPRECI S. COOP.	820
DAYMLERCHRYSLER ESPAÑA, S.A.	3.787
GKN DRIVELINE ESPAÑA, S.A.	87
HISPAVISTA	35
INDUSTRIA DE TURBO PROPULSORES, S.A.	750
KAIKU INTERNACIONAL, S.L.	10
MAIER S. COOP.	909
MICHELIN ESPAÑA-PORTUGAL, S.A.	4.860
ORKLI S.C.L.	546
POLIESTER GABIRIA	14
SARRIOPAPEL Y CELULOSA, S.A.	138
SIDENOR INDUSTRIAL, S.L.	2.027
TECNOLOGIA DEL CARTON	48
TUBACEX TUBOS INOXIDABLES, S.A.	541
TUBOS REUNIDOS	943

Iturria: EAEko Esportatzaileen Katalogoa 2008



Iturria: EUSTAT

EAEko enpresek ederki erantzun diote globalizazio ekonomikoari, eta azken urteotan etengabe handitu dute kanpo-merkataritza duten. Ekonomiaren zabalkunde handia lortu dute, Alemaniak berak baino handiagoa eta Espainiako Estatuak duena baino askoz handiagoa. Gainera, asko aurreratu da industriaren dibertsifikazioan, eta orri esker jarduera-sektore berriak sortu dira. Sectore horiek bizitasun handia dute, eta esportatzeko ahalmen handiagoa. Biozientzien arloa da sektore horietako bat, eta teknologia-eduki ertain/handiko eta handiko esportazioak ugaritzea eragin du.

### Enpresa Esportatzaileak

EAEko ekonomiak esportatzeko duen joera (BPGren gaineko esportazioak) %32,1koa da azken azterketa ofizialen arabera: gure ingurune ekonomiakoko herrialde gehienek gaintik gaude, eta Italiaren eta Erresuma Batuen parean.

Alemania da alde nabarmena kentzen digun herrialde bakarra (izan ere, herrialde hori oso esportatzailea da).

### Kanpo-inbertsioa: Legeria

Kanpo-inbertsioei buruzko legeria oso liberala da, oro har, nahiz eta zenbait kasutan araututa egon eta formulismo batzuk bete behar izan: inbertsioen “ex-post” aitortpena egin beharra dago, helburu administratibo, ekonomiko eta estatistikoetarako. Hala ere, paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialdeetatik edo herrialdeetan egindako inbertsioen kasuetan, izapide horretaz gain, beste jakinarazpen administratibo bat egin behar izaten da, inbertsioa ordaindu baino lehen.

Eragiketak, orduan, sektore bakoitzari dagokion xedapenean ezarritako izapide administratiboa gaitu beharko du, kanpo-inbertsioa araudi berezia duen alor edo sektore batean eginez gero. Adibidez: aire-garraioan; ikus-entzunezko hedabideetan; mineral eta lehengai mineral estrategikoetan nahiz meatzetako eskubideetan; telebistan; jokoan; telekomunikazioetan; segurtasun pribatuan; erabilera zibileko arma eta lehergaien fabrikazio, salerosketa eta banaketan; eta Estatuaren Defentsarekin zerikusia duten jardueretan.

## EAEEn jarduten duten atzerriko enpresen lagin bat

HERRIALDEA	ATZERRIKO ENPRESA	
ALEMANIA	ATOTECH BOSCH SIEMENS DAIMLER BENZ DIDIER – WERKE HALBERG GUSS KEMPCHEN KSB MANNESMAN MANNESMANN DEMAG METALLGESELLSCHAFT Y BERZELIUS	MÖLLER GRUPPE PFERD PIERBURG RWE SEW – EURODRIVE WIKUS ZF – LEMFÖRDER
AUSTRIA	GRUPO ATB	
BRASIL	VOEST ALPINE – VAI COSIM	
KANADA	GERDAV	
HEGO-KOREA	TAVEX	
AEB	BOMBARDIER	
FINLANDIA	DAEWOO ELECTRONICS	
FRANTZIA	BP COLLINS & AIKMAN DHL DOW CHEMICAL FEDERAL MOGUL FORMICA GENERAL ELECTRIC GUARDIAN GLASS ITW - ILLINOIS TOOL WORKS KIMBERLY CLARK	OTIS PEPSICO SILICON GRAPHICS SNAP ON TOOLS SUN CHEMICAL CORP. SUNRISE MEDICAL TENNECO TYCO WHIRPOOL INTERNATIONAL
IRLANDIA	OY WARTSILA	
ITALIA	OUTOKUMPU	
JAPONIA	AIR LIQUIDE ALCATEL ALSTOM AXA CARREFOUR CIE GENERALE DES EAUX GEODIS HUTCHINSON	LYONNAISE DES EAUX MICHELIN RHONE POULENC, S.A. SAUNIER DUVAL SEI THOMSON CSF USF-HPD (Velia Environnement)
LUXENBURGO	BRUNNSCHWEILER	
ERRESUMA BATUA	ESB	
SUEDIA	CANDY	
SUITZA	COMAU-FIAT	
ERRESUMA BATUA	BRIDGESTONE CORP	
SUEDIA	DAINIPPON INK & CHEMICALS	
SUITZA	EBARA CORPORATION	
ERRESUMA BATUA	MITSUI / KORASAKI	
SUEDIA	NAKAGAWA	
ERRESUMA BATUA	NIPPON YUSEN KABUSHIKI KAISHA	
SUEDIA	ARBED	
ERRESUMA BATUA	CHUBB	
SUEDIA	GKN	
ERRESUMA BATUA	IKEA	
SUEDIA	ABB	
ERRESUMA BATUA	NESTLE	
SUEDIA	ROLLS ROYCE	
ERRESUMA BATUA	PRECICAST	

*Iturria: Espainiako atzerriko inbertsioak sustatzeko eta erakartzeko sozietatea 2007*

## Atzerriko Enpresek EAEko Enpresetan Egindako Inbertsioak

EAE atzerriko inbertsioak jasotzeko erregio erakargarria da. Industriaren tradizioari eta gauzak egiten jakiteari hurrengo faktore hauek gehitu behar zaizkio: kokapen estrategikoa, komunikazio-sarea, espezializazio handiko azpi-kontrataziorako enpresa-sarea eta azpiegitura energetiko eta teknologikoen sarea. Asko dira EAE aspaldi aukeratu zuten enpresa transnazionalak. Enpresa horiek poz-pozik daude gure herrian, eta Euskal Herriak munduan dituen enbaxadore onenak bihurtu dira.

1990eko hamarkadan eta hurrengo urteetan, merkataritzak eta nazioarteko finantza-fluxuek eboluzio ziklikoa izan dute: ekitaldi batzuetan hedapen handia egon da, eta beste batzuetan atzeraldi txikiak izan ditugu. Horrek eragina izan du, noski, EAEn egiten diren atzerriko inbertsioetan. Nolanahi ere, azken urteotan kanpo-inbertsioaren atzipenean gure autonomia-erkidegoak izandako partaidetza %5 eta %10 artean kokatu da (2007an %5,6 izan zen, INEren datuen arabera), Madril eta Kataluniaren atzetik. Inbertsio gehienak Europar Batasuneko herrialdeetatik etorri dira. Gaur egun, EAEn kokatutako 700 enpresak baino gehiagok atzeritar enpresen partaidetza andia dute, batzuetan gehiengoa izanik.

## Saretek - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea

### KIDEAK

<ul style="list-style-type: none"> <li>5 unibertsitate</li> <li>Oinarrizko ikerkuntzako eta bikaintasunerako zentro 1</li> <li>19 ikerketa-zentro</li> <li>2 teknologia-zentro</li> <li>3 ikerketa-zentro kooperatibo</li> <li>teknologia garatzeko eta transferitzeko nazioarteko zentro 1</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikerketako 2 erakunde publiko</li> <li>5 ikerketa-zentro sektorial</li> <li>Enpresetako I+G-ko 21 unitate</li> <li>Osasun-arloko I+G-ko 2 unitate</li> <li>Ziurtagiriak emateko 5 erakunde eta laborategi</li> <li>Berrikuntzako erdi-mailako 22 erakunde</li> <li>4 parke teknologiko</li> <li>Enpresa eta berrikuntzako 3 zentro</li> </ul>
--	--

## Saretek - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Agentzia: Saretek-eko kide diren agenteak (1)

KATEGORIA	ERAKUNDEA	ESPEZIALIZAZIOA
<b>OINARRIZKO IKERKUNTZAKO ETA BIKAINASUNERAKO ZENTROAK</b>	DIPC FUNDAZIOA	Oinarrizko fisika eta fisika aplikatuari buruzko ikerkuntza zientifikoa
<b>IKERKETA-ZENTRO SEKTORIALAK</b>	CIDEMCO AZTI CTA ENERLAN FUNDAZIOA ARANZADI ZIENTZIA-ELKARTEA	Eraikuntza Itsas baliabideak Aeronautika Energia Kultur eta natur ondarea
<b>OSASUN-ARLOKO I+G-KO ZENTRO ETA UNITATEAK</b>	INGEMA - MATIA, SL GERONTOLOGIA-INSTITUTUA BIOEF- BERRIKUNTZA+IKERKETA+OSASUNA	Gerontologia Osasun-sistema
<b>TEKNOLOGIA ELKARREKIN GARATU ETA TRANSFERITZEKO ZENTROAK</b>	VICOMTECH	Multimedia
<b>IKERKETA-ZENTRO KOOPERATIBOAK</b>	CIC BIOGUNE CIC BIOMAGUNE CIC MICROGUNE CIC NANOGUNE CIC MARGUNE CIC TOURGUNE	Biologia-zientziak Biomaterialak Mikro eta nanoteknologiak Nanozientziak eta nanoteknologiak Errendimendu altuko fabrikazioa Turismorako I+G+b
<b>TEKNOLOGIA-ZENTROAK</b>	CIDETEC LABEIN FUNDAZIOA ROBOTIKER FUNDAZIOA LEIA FUNDAZIOA ESI FUNDAZIOA FATRONIK FUNDAZIOA TEKNIKER FUNDAZIOA GAIKER FUNDAZIOA CEIT IDEKO IKERLAN INASMET FUNDAZIOA	Energia, gainazalen tratamendua eta material berriak Automozioa, energia, eraikuntza, burdingintza eta garapen erregionala Produktuen garapena Kimika iraukorra, ingurumena, elikagaiak, farmazia Software-a Fabrikazio-prozesuak Mekatronika, azalaren teknologia, mikrotekologiak, IKTak Material plastikoak eta komposituak, ingurumena, birziklatzea eta balorizazioa, eta industriarako bioteknologia Industria-arloko lehiakortasuna Produktu-ingeniaritza, mekanika, kontrola Produktu berrien garapen integrala Materialak
<b>BERRIKUNTZAKO ERDI-MAILAKO ERAKUNDEAK</b>	BAI BERRIKUNTZA AGENTZIA IK4 RESEARCH ALLIANCE ILUNDAIN FUNDAZIOA ITEA ELHUYAR FUNDAZIOA LEA ARTIBAI LANBIDE ESKOLA IKERTIA FUNDAZIOA TECNALIA NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA LASSOA FUNDAZIOA CITMA ELKARTEA INVEMA EITE EUSKOMEDIA FUNDAZIOA EUSKOIKER FUNDAZIOA EUSKO IKASKUNTZA TEKNOLOGIA-ZENTROAK FUNDAZIOA ASMOZ FUNDAZIOA INGENIA FUNDAZIOA UZEI UNESCO METALINGUA FUNDAZIOA BIZKAIA XEDE	Berrikuntza Berritzeko eta lehiatzeko gaitasuna Neurozientziak Altzairua Zientzia, teknologia, euskara Hezkuntza bidezko garapena I+G+b-ko jarduerak sustatzea Ikerkuntza garatzea eta zabaltzea Gazteak lan-munduan eta gizartean integratzea ETEen kudeaketarako berrikuntza Ingurumena Makina-erreminta Teknologia Euskal kultura zabaltzea multimedien bitartez Unibertsitatearen eta enpresen arteko lankidetzak Euskal kultura Prestakuntza zientifiko eta teknologikorako beka Prestakuntza telematikoa Ikerkuntza, teknologia eta berrikuntza garatzeko ingeniaritza Terminologia eta lexikografia Hizkuntzak babestea eta garatzea Langileak trebatzea

(1) Hauek falta dira: ikerketa-erakunde publikoak, parke teknologikoak eta IBlak, ziurtagiriak emateko unitateak eta laborategiak, enpresetako I+G-ko unitateak eta unibertsitateak.

## ➤ I +G eta Azpiegitura Teknologikoa

# 4.

AAEk eta, batik bat, enpresa sektoreak duela 25 urte baino 20 bider gehiago inbertitzen dute gaur egun I+G-ko jardueretan. BPGren %1,65 inguru da hori (2007), Espainiako batez bestekoa (%1,2) baino askoz gehiago.

Europar Batasuneko batez bestekora iristeko asmoa dago. Estatuko I+G-ko sisteman, gauzatutako gastuaren %8,1 hartzen du, dedikazio osoko baliokidetasunean dabilzan langile guztien %7,3. Erakusle gehienak Espainiako batez bestekoaren gainetik daude, eta EBkoetatik gertu. EBko kopuruak gainditu egiten ditugu zenbait kasutan, industria-sektoreak duen pisu handiari eta berrikuntza teknologikoaren beharraz dagoen sentsibilizazioari esker, hein handi batean.

EUROSTATen datuen arabera, EAE Europako lehen erregioa da HRSTERi dagokionez (hezkontza alorrean, biztanleria aktibotik zientzia eta teknologiarantz bideratutako giza baliabideak), Londresko erdialdearen, Bruselaren eta Osloren aurretik, bai eta Nafarroako (6.) eta Madrilgo erkidegoen (8.) aurretik ere.

Era berean, seigarrenak gara zientzia eta teknologiarantz bideratutako giza baliabide guztiak (HRST) kontuan hartuta, Londresko erdialdearen, Osloren, Stockholmen, Pragaren eta Belgikako Walonia eskualdearen aurretik eta Espainiako beste erkidego batzuen aurretik (Nafarroa, 20., eta Madril, 25.).

SARETEK izeneko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea 1997. urtean jaiotzen zen Eusko Jaurlaritzaren ekimenez. Bere xedea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza bultzatu nahi duten erakunde publiko nahiz pribatu guztien ahaleginak biltzea da, enpresen lehiakidetasunaren hobekuntzan baliabide gisa erabiltzeko eta Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko. Gaur egun, 80 Erakunde baino gehiagok osatzen dute, ondokoan artean: Gune Teknologiko eta Sektorialak, Laborategiak, Enpresa Unitateak, Unibertsitateak, etab. Horiek guztiak era koordinatuan dihardutenez, konponbide teknologikoak eskaintzen dizkiete enpresa nahiz sektore desberdinei, garapen ildo zehatzetan lan eginez. SARETEK osatzen dutenek elkarlan aktiboan dihardute euskal eta europar enpresa ehunarekin Ikerkuntza eta Garapen Teknologikoaren europar programetan parte hartzean.

I+G-ko gastua			
	EAE	ESPAINIAKO ESTATUA	EUROPAR BATASUNA
Gastua, BPG-ren %	1,65	1,27	1,83
Enpresen gastua, BPG-ren % (Enpresek eta erakunde pribatuek egindako I+G-ko gastua)	1,34	0,71	1,17
DOB langileak / biztanleria landuna (% <sup>oo</sup> ) (DOB = dedikazio osoaren baliokidetzatza)	14,20	9,06	9,25
DOB ikerlariak / biztanleria landuna (% <sup>oo</sup> )	9,10	5,53	5,56
<i>Iturria: EUSTAT, INE, Eurostat eta guk eginda. 2007eko datuak.</i>			

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (Saretek) 1997an sortu zen Eusko Jaurlaritzaren ekimenez. Enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta EAEn garapen ekonomiko eta sozialean laguntzeko, zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatu nahi duten erakunde publiko eta pribatu guztien ahaleginak biltzea da sare horren helburua. Gaur egun, 90 bat erakunde — teknologia-zentroak, zentro sektorialak, laborategiak, enpresa-unitateak, unibertsitateak, etab. — osatzen dute sarea. Horiek guztiak era koordinatuan jarduten dute, soluzio teknologikoak eskaintzen dizkiete enpresa nahiz sektore desberdinei eta garapen-ildo zehatzak lantzen dituzte. Saretek-eko kideak elkarlan estuan aritzen dira EAEn eta Europako enprekin, Europako ikerkuntza eta garapen teknologikorako programetan.

EAE Europako berrikuntzaren erreferentzia izatea nahi du Eusko Jaurlaritzak, eta urrats sendoa eman du bide horretan, Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentzia sortuz. Agentzia hori irabazi asmorik gabeko elkarte pribatua da, eta EAEn esparru guztietan berrikuntza koordinatzeko eta bultzatzeko sortu da, ekimenerako grina eta sormena areagotzeko. Saretek-ek, enpresa pribatuek, EAEn erakunde publikoek, EAEn enpresen ordezkari instituzionalek, EAEn langileek eta berrikuntzarekin zerikusia duten arloetako era askotako erakundeek osatzen dute Agentzia. Innobasque-ek plataforma indartsua eta lankidetzarako sarea eskaini nahi dizkie eragile horiei guztiei, berrikuntzari lotutako balio eta jarrerak hedatzeko EAEn gizartean, EAE berritzailearen irudia kanpoan zabaltzen laguntzen duten ekintzak antolatuz, EAE I+G+g-ko polo aurreratua dela erakutsiz, eta EAEn enpresa eta erakundeetan berrikuntzaren aldeko dinamika sortzen laguntzen duten era guztietako jarduerak eginez.

Eurobulegoa EAEn enpresek Europako I+G-n duten presentzia koordinatzeaz arduratzen da., eta aurrerapauso handia izan da bulego horren sorrera. Alor hauetaz arduratzen da gehienbat: dena ondo-ondo planifikatzeaz, aurrerapenen jarraipena egiteaz eta aurrerapenok zuzentzeaz, Europako proiektuak eta eragile teknologikoak dinamizatzeaz eta EAEn I+G-ko programak Europara eramateko proiektuak garatzeaz.

Alor horretan izandako hobekuntza etengabearen emaitza gisa, EAEn erakundeek Europar Batzordearen Seigarren Esparru Programan zehar lortutako itzulkinak Bosgarren Programan lortutakoa baino %41 handiagoa izan da. Guztira 131 milioi euro eskuratu dira, onartutako 632 proiekturen bidez.

Berrikuntzaren aldeko apustuari jarraiki, Euskadi+Innova ekimena da EAEn berrikuntza bultzatzearen alde diharduten pertsona eta erakunde guztiak biltzen dituen estrategia. EAE Europar berrikuntzaren erreferente bihurtzea da helburua, eta, horretarako, Euskadi+Innova estrategiak hainbat ekimen eskaintzen ditu berrikuntzaren kultura eta balioak bultzatzeko.

Bestalde, 2008ko irailean Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuen Arcelor-Mittal taldearekin. Burdingintzako munduko talderik handiena da Arcelor-Mittal, eta Bizkaian altzairuan espezializatutako bikaintasun eta ikerkuntzako zentro bat zabaltzea da hitzarmenaren helburua. Zentroak 45 profesional ez osatutako lan-taldea izango du eta 100 milioi euro inbertituko dira bertan. Era berean, Ikerbasque-k (EAEn Zientziarako Fundazioa) eta EHUK bultzatutako Matematika Aurreratueterako Bikaintasun Zentroa aurkeztu zen 2008ko azaroan, ikerkuntza-karrerak garatzeko erreferentzia zentroa izateko asmoz.

Azkenik, ESS-Bilbao izango da Espainiako Estatuaren hautagaia, espalazio bidezko neutroi-iturriaren Europako egoitza izateko. ESS Espainian kokatzeko aukera horrek babes handia jaso du Jaurlaritzatik nahiz Espainiako Gobernutik, eta zientzia-erakunde garrantzitsuen aldetik. Gainera, Espainiako enpresa-taldeek eta enpresa handienek xehetasun guztiak jaso dituzte espainiar hautagaitzari buruz, ESS Bilbon kokatzeko behar den babes logistiko eta finantzario guztia lortzearen. ESS-a da instalazio handi hau Bilbon kokatzeko hautagaitzaren muina, baina egitasmo honek beste ekimen osagarri batzuk ditu. Zientzia, teknologia, enpresa, hiria, kultura eta hedapena biltzen dituen nazioarteko jakintza-polo bat sortzeko egitasmo handia osatzen dute denen artean. 2008an zehar, Eusko Jaurlaritzak lankidetzahitzarmena sinatu du AEBetako Tennessee estatuko Neutroen Espalazio Zentroarekin (SNS - Spallation Neutron Source). Mundu osoan dagoen belaunaldi berriko neutroi-iturririk aurreratuena da hori. Bestalde, Europar Batzordearen bisita jaso eta gero, lehen hautaketa gainditu eta ESS kokatzeko hiru hautagaietako bat da EAE, Suediako Lund-ekin eta Hungariako Budapest-ekin batera.

## Parke Tecnologikoak

Euskal Sareak lau parke teknologiko ditu enpresei zerbitzu aurreratuena eskaintzeko: ahotsa, irudia eta datuak bidaltzeko komunikazio-sarea, hitzaldi eta bideo-konferentzietarako aretoak, auditorioak, etab. Ekimena eta enpresen inbertsioa erraztu, sustatu eta bultzatzeko tresnak bilakatu dira. Puntako teknologia duten enpresak eta ikerketa- eta zerbitzu-zentro aurreratuak finkatzeko aukera ematen duten azpiegiturak sortu dira horretarako, berrikuntza handia dakarten industria-jarduera eta zerbitzuekin batera. Horri esker, teknologia eta jakintza trukutzen dira unibertsitateen, teknologia-zentroen eta enpresen artean. Partaidetza hori Estatu osoan dagoenaren %20a baino gehiago da. Gaur egun dauzkagun parkeez gain beste bi proiektu jarriko dira martxan: Ezker Ibarreko teknologia-parkea, 2010ean, eta Bilboko Zorrotzaurre uhartekoa, 2015ean. Espainian hiri baten barruan egiten den lehen teknologia-parkea izango da Zorrotzaurrekoa.

## Bizkaiko Parke Teknologikoa

Bizkaiko parke teknologikoa Zamudion dago, eta 1985. urtean sortu zen. Era honetako Espainiako Estatuko aurreneko parkea izan zen. Berrikuntza teknologikoarekin konpromisoa duten enpresentzako kalitate gorena eta zerbitzu onenak eskaintzeko xedearekin sortu zen. Kokapen estrategikoa dauka: Bilbotik, hots, industriaren eta finantzen hiriburutik, 10 Km-ra, Bilboko nazioarteko aireportutik 3 Km-ra, portutik 15 km-ra eta EHUren campus nagusitik 6 Km-ra. Oso ingurune ederrean dago. 200 hektareatik gorako azalera du eta 50.000 m<sup>2</sup> alokairuko eraikinetan; horrela, enpresak alokairuan egon daitezke hazi eta garatzen diren bitartean, eta sendotutakoan beren eraikina finkatzeko lursailak eskuratu ditzakete parkean bertan. Parke teknologikoaren inguruan enpresen berrikuntza sustatzeko I+G-ko egitura nabarmena dute, parkean kokaturiko teknologia-zentroetan oinarrituta: Gaiker, Labein, Robotiker, European Software Institute, Azti eta Teknologia Aeronautikoen Zentroa. CIC Biogunek (biozientzietako ikerketa kooperatiborako zentroa) eta EHUren diziplina anitzeko ikerketa-taldeek osatzen dute parkearen eskaintza zientifikoa. 2008an, parkeak 30 milioi euroko inbertsioa jaso zuen guztira enpresa sortu berrien eraikina eraikitzeko. Era berean, parkearen azalera 425.000 m<sup>2</sup>-an handitzeko 3. fasea onartu da. Komunikazio-azpiegitura bikaina dauka, zuntz optikoko sarerako konexioa dute eraikin guztiek, Gigabit Ethernet erabilita, eta gainera, enpresa-jardueran laguntzeko zerbitzu guztiak eskaintzen dira parkean.

## Arabako Parke Teknologikoa

Arabako parke teknologikoa Miñao herrian dago, Europako Hegoaldeko lotune logistiko handi baten erdi-erdian. Parkeak lotura ona dauka Europako zenbait errepiderekin, tren nahiz errepide bidezko komunikazio-sare bikaina dauka, eta aireportutik 7 Km-ra dago. Ingurumen-kalitate handiko 117 hektarea dauzka parkeak, eta unibertsitate-campusetik eta Gasteiztik 5 Km-ra dago. Zentro teknologikoen bidezko eskaintza teknologiko garrantzitsua du, esate baterako: Aeronautikaren Gune Teknologikoa, Ikerlan Energia, Enerlan Fundazioa, LEIA Fundazioa (ingurumen-teknikak) eta Euskalmet, EAeko Meteorologia Agentzia. 2011rako dauzkan proiektu berrien artean, Praxis talde farmazeutikoak parkean irekiko dituen zientzia biofarmazeutikoko I+G+b-ko zentroa eta sendagaien ekoizpen industrialerako instalazioak nabarmentzen dira: 40 milioiko inbertsioa egingo da proiektu horretan eta 220 lanpostu sortuko dira. Teknologian oinarritutako enpresa berriak sortzeko oinarri ezin hobea da parkea, eta kalitate handiko zerbitzu komunitarioak dauzka. Ekipamendu telematikoa da zerbitzu horietako bat: enpresak zuntz optikoaren bidez konektatzen ditu, Gigabit Ethernet erabiliz. Horrez gain, enpresa-jardueran laguntzeko zerbitzu-eskaintza zabala dauka.

### Miramongo (Donostia) ko Parke Teknologikoa

Donostiako parke teknologikoa Miramongo parke natural ikusgarrian dago, Donostiako erdigunetik 5 Km eskasera, eta Frantziako mugatik 10 minutura. Ardatz Atlantikoko aire, itsaso, tren eta errepide bidezko komunikazioen erdiko lotunean egonik, ederki komunikatuta dago. Parkean ikerketa-zentro garrantzitsuak daude, hala nola, Aranzadi Ikerketa Zentroa, Fraunhofer-VicomTech, Inasmet, Inbiomed, Ceit, Cidetec, ITEA, Tecnotat, Nafarroako Unibertsitatea, Irudi Molekularrari buruzko Unitate bikaina duen CIC Biogunea izeneko Biomaterialei buruzko Ikerketa Gunea, turismoari buruzko I+G egiten duen Tourgune zentroa, eta zientzia eta teknologiei buruzko ikerkuntza egiten duten CIC Microgune, CIC Nanogune eta CIC Biomagune zentroak. Parkeak mundu-mailako puta-puntako ikerketa-proiektuak garatzen ditu, entzute handiko erakundeekin, MITekin eta Europako Espazio Agentziarekin, esate baterako. Era berean, teknologian oinarritutako enpresak sortzen laguntzen du. Parkeak nazioarteko azpiegitura telematikorik aurreratuen eta malguenetakoa du: lantoki bakoitzera iristen den zuntz optikoko sarea, satellite bidezko ATM Gigabit Ethernet eta IEEE802.11.b elektronikak erabilitako komunikazioak eratzen dituen, adibidez.

### Arrasateko Parke Teknologikoa (Garaia Gunea)

Garaia Berrikuntza Gunea izenez ezagutzen da Arrasateko teknologia-parkea, eta 2006an hasi zen lanean berrikuntza-jarduerei laguntza emateko proiektu hau. Mondragón Corporación Cooperativaren ekimen pribatuak gidatzen du Gune hau. Mondragon Unibertsitatearen babesa du ezagutza zientifikoari dagokionez, Ikerlan Teknologia Ikertegiarena ikerkuntza alorrean, eta zenbait erakunde publikoena. Ikerkuntza eta proiektuen garapena bultzatzea da Garaiaren helburua, aspaldi honetan indartzen ari diren arlo eta sektore hauetan: energia, materialen teknologia, business eta management, enpresen antolakuntza eta kudeaketa, elektronikak, mikroelektronika eta nanoteknologia, IKTak, eta gainazalen akabera-prozesuak eta makinak.

## Telekomunikazioak

Datuak internet, intranet, fax nahiz bestelako bidez bidaltzeko 200 bit segundoko, 64 Kbit segundoko eta 34 Mbit segundoko abiadura duten belaunaldi berriko ildoak dauzkagu EAEn. Telekomunikazioetan enpresa operatzaileen eskaintza zabala dago. Horri esker, lehiakortasun handia dugu Interneten eta kable bidezko telekomunikazioekin zerikusia duten zerbitzuetan. Telefono bidezko azpiegitura arruntaz gain, zuntz optikoko sareak dauzkagu, tarifa lauko zerbitzuak eskaintzen dira eta RDSI eta ADSL teknologia erabat integratuta daude komunikazio-sisteman. Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta SPRI sozietateak kudeatutako Konekta Zaitetz! ekimenari esker, interneterako sarbidea duten enpresa gehien dituen erkidegoa da EAE (% 97,2), Nafarroarekin batera, eta etxean konexioa duten erkidegoetan hirugarrena (% 57).

EAEko parke teknologikoen Sarea I2BASK sareko kidea da. I+G+g-ko komunitatea egituratzea da I2BASK-ren helburua, eta, horretarako, IKTko zerbitzuak eta telekomunikazio-azpiegiturak eskaintzen dizkie EAEko Zientzia eta Teknologia Sareko eragileei. Unibertsitateek, zientzia- eta teknologia-zentroek, ospitaleek,

biomedikuntzako ikerketa-zentroek eta I+G kudeatzen duten erakundeek osatzen dute Sarea. Eragile horiek guztiek komunikazio multimediako, alegiazko errealitateko, komunikazio gehituko, kalkulu intentsiboko eta antzeko gaien inguruko proiektu aurreratuak lantzeko beharrezko ahalmena eskuratzen dute I2BASK sarearen bidez. I2BASK sareak banda zabaleko lehen konektibitate-maila bat eskaintzen du EAEn, estatu-mailako bigarren maila bat IRIS2 sarearekin, eta Europa-mailako beste maila bat, IRIS2 sarearen bidez doan GEANT sarearekin. Erakunde asko ari dira lanean oraingo batez besteko konexio-abiadura (1,2 Mbps) handitu eta banda zabaleko konexioaren nazioarteko sailkapenean gora egiteko. Japonia eta Korea daude sailkapen horren gailurrean (61 Mbps eta 45,6 Mbps-ekin, hurrenez hurren). Informazio-teknologia garatzeko EBk bultzatzen duen ekimenaren barruan, EAE Informazio Gizartearen egoitza izango da 2010ean. Europako udalerrri, probintzia eta erregioek informazio-gizartearekin eta teknologia horien aplikazio eta garapenarekin zerikusia duten gaiak lantzeko foro nagusia da hori.

## ➤ Industria- Jarduerekin Zerikusia Duten Zerbitzuak

# 5.-

### Merkataritza Ganberak

EAEEn merkataritza-ganbara bana dago hiriburu bakoitzean. Merkataritza, industria eta itsas sektoreen interes orokorrak ordezkatzeko, sustatzea eta babestea; enpresei zerbitzuak eskaintzea; aholkularitza tekniko, legal eta finantzarioa ematea; eta ekonomia bultzatzeko behar diren jarduerak egitea da ganbera horien egitekoa.

### Cluster Sektorialak

1990eko hamarkada hasieratik, Eusko Jaurlaritzaren Lehiakortasun Programa abian jarri zenetik beraz, EAEko industria-sektore nagusiak erakunde sektorial batzuk eratzen joan dira, sektore horietako enpresen arteko eta beste sektore batzuetako enpresekiko lankidetzak tekniko eta komertzialak bultzatzeko. Horretarako, gure enpresak nazioarteko era guztietako azoka eta topaketetan egotea bultzatzen dute. EAEko industria-politikaren funtsezko tresnak dira, eta enpresek elkarlanean erantzuteko ezinbesteko bitartekoak.

### Orkestra - EAEko Lehiakortasun Institutua

EAEko Lehiakortasun Institutuak administrazio publikoaren, eragile sozio-ekonomikoen eta EAEko unibertsitate guztien jardura bultzatu nahi du lehiakortasunarekin zerikusia duten esparruetan, EAEren lehiarako abantailak indartuta, sozio-ekonomian hazkunde-tasa handiagoa lortu eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetuz. Horretarako, alor hauek jorratuko dira: ikerketa, prestakuntza, prospektiba, laguntza teknikoa, ebaluazioa, eztabaida eta bikaintasun-sareetan parte hartzea. Lehiakortasunean eragina duten alor guztiak lantzen ditu Institutuak, eta arlo hauei ematen zaie lehentasuna: lehiakortasuna eta berrikuntza, clusterrak eta erregio-mailako garapena, estrategia, entrepreneurship-a eta jakintzaren gizartea.

Deustuko Unibertsitateak eta Deusto Fundazioak bultzatutako ekimen honek babesle hauek dauzka: Eusko Jaurlaritza (SPRIren bidez), Kutxa, Euskaltel, Repsol-Petronor eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

EAEko Lehiakortasun Institutua Munduko Lehiakortasun Institutuen Sareko kidea da eta lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditu Harvard Unibertsitateko Institute for Strategy and Competitiveness institutu ezagun bezain entzutetsuarekin. Michael E. Porter irakaslea da institutu horretako zuzendaria, eta Orkestrako ohorezko presidentea. Zentroak Enpresen Lehiakortasunari eta Erregioen Garapenari buruzko ikastaro bat (CCEDR) emango du, beste jarduerak batzuen artean. 2008ko urriaren Hego Afrikan egindako TCIn (The Competitiveness Institute) Munduko Biltzarrean, Euskadi+Innova-k antolatutako “Directiv@21 Acción Cluster” ekimen arrakastatsua aurkeztu zen. Ekimen horrek hainbat enpresatako 1.200 zuzendaritzako kide trebatu ditu berrikuntzen alorrean. Gaur egun, Klusterreko politiken koordinatzailea da TCIn presidentea.

## Finantza eta Aseguruen Sektorea

EAEko finantza-sektorea hazkunderako eta Europako gainerako herrialdeekiko merkataritza- eta finantza- alorreko harremanetarako bultzatzaile garrantzitsua izan da beti. Itsas ibilbidetan izandako kokapen geografiko bikaina ere lagungarria izan da, kapitalak metatzea ahalbidetu zigun burdingintzaren eta burdinolen tradizioarekin batera. Faktore horiei esker, EAEk garapen finantzario handia izan zuen, eta horri lotuta sortu ziren gure herriko lehenbiziko banketxeak.

Finantza-jardunak garatzen jarraitu du orduz geroztik, eta Espainiako Estatuko lehenengo bosten artean dago gaur egun, bankuek —bertakoek nahiz atzerrikoek—, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek eskainitako zerbitzuek osatzen duten sistema baten bitartez. Gainera, finantza-talde garrantzitsuenetako batzuek gurean dute egoitza nagusia.

2008ko urtarrilean, sistema horrek 1.940 bulego zituen EAEn, hau da, 1.110 biztanleko bat. Ospe handieneko banketxe atzerriarrek —Barclays Bank, Citibank, Lloyds Bank, Credit Lyonnais, Credit Agricole, Fortis Bank, BNP Paribas eta Deutsche Bank— bulegoak dauzkate gure erkidegoan.

Aurrezki-kutxek ospe eta tradizio handia izan dute EAEn, iragan den mendearen amaieran sortu zirenetik. Estatuko aseguru-etxe garrantzitsuenek ere beren jarduerak egiten dituzte EAEn.

## Bilboko Burtsa

Espainiako Estatuko balore-burtsen arteko bigarrena da, kontratazio-bolumen aldetik. Balore guztiak negoziatu daitezke bertan, bai bono moduan, bai paper komertzialen moduan. Esperientzia handiko bitartekaritza-sozietate ugari dauzkagu, halaber, enpresei eta partikularrei laguntzeko.

## Azpi-kontratazioa

Azpi-kontratazioaren sektorea ederki egokitu da EAEko ekonomiako esparru desberdinek izandako aldaketetara, eta hazkunde handia izan du sektore askotan: galdaketan, txirbil-harroketarik gabeko eraldaketan, txirbil-harroketarekin egindako mekanizazioan, tratamendu termikoetan, gainazalen estalduretan, matrizeen moldeak eta ereduetan, tresnerian eta erremintetan, catering-ean eta elikaduran, plastikoetan, kautxuan, elektrizitatean, informatika-hornigaietan, sare lokaleko hornitzaileetan, komunikazio lokalerako sareen instalazioetan, RDSIn, ADSLn, elektronikan... Enpresa homologatu guztiei buruzko informazioa aurkituko duzue helbide honetan: [www.subcontratistas.com](http://www.subcontratistas.com). Bertan, produktuen jarduerak, bitartekoak, homologazioak eta beste azaltzen dira.

## Biltzar-aretoak

EAEk aukera zabala dauka hitzaldiak, biltzarrak, sinposiumak, eztabaidak eta bestelako bilerak antolatzeko. Bizkaian Nazioarteko Erakustazoka, Zamudioko parke teknologikoa eta Euskalduna jauregia nabarmentzen dira. Azken hori "munduko biltzar-areto onena" izendatu zuten 2003an, AIPCk (biltzar-aretoen nazioarteko elkarteak) ematen duen Apex Award sariaren epaimahaiak hala erabakita. Gipuzkoa ere nazioarteko biltzar-zirkuituaren barruan dago, Donostia bereziki, Donostiako Zinemaldi entzutetsuari esker gehienbat. Areto bikainak dauzka Donostiak: Miramareko eta Aieteko jauregiak, Miramoneko parke teknologikoa eta Kursaal jauregia, adibidez. Kursaal jauregiak EBko eraikin onenaren Mies van der Rohe saria eskuratu zuen 2001ean, eta ISO 9001:2000 kalitate ziurtagiria eskuratu duen Espainiako lehenbiziko biltzar-jauregia izan da. Araban, azkenik, beste bi biltzar-areto dauzkagu: Europa Jauregia eta Miñaoko parke teknologikoa. Gainera, hiru hiriburuek kalitate handiko hotel eskaintza zabala dute, biltzarrak, enpresa-topaketak edo negozio-bilerak egiteko.

Bilboko Burtzaren historiaren laburpena	
DATA	GERTAKARIA
1890eko uztailaren 21a	Bilboko Burtza sortu zen
1891eko otsailaren 5a	Lehenengo eragiketa egin zen
1905eko maiatzaren 29a	Eraikina inauguratu zen
1989ko apirilaren 24a	Kontratazioa mekanizatu zen
1989ko uztailaren 26a	Bilboko Balore Burtzako gaur egungo Zuzendaritza Sozietatea sortu zen
1991ko azaroaren 20a	Eraikin berriztatua inauguratu zen

*Iturria: Bilboko Burtza: <http://www.bolsabilbao.es>*

Elkarren bermerako sozietateak		Arrisku-kapitaleko sozietateak	
Elkarri, S.G.R.	Donostia	Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, S.A.	Bilbo
		Ekarpen	Bilbo
Oinarri, S.G.R.	Gasteiz	SEED Capital de Bizkaia, S.A.	Bilbo
		SEED Gipuzkoa, SCR	Donostia
		Sociedad de Promoción y Desarrollo Talde	Bilbo
		Hazibide, S. A.	Gasteiz

*Iturria: Guk egindakoa*

BEC - Bilboko erakustazoka		
JARDUERAK		
TENDENCIAS CREATIVAS	otsaila	Eskularen eta sorkuntza-joeren azoka
FERROFORMA / BRICOFORMA	martxoa	Burdineria eta brikolajeko nazioarteko azoka
SINAVAL / EUROFISHING	apirila	Itsasontzi, itsaso, portu eta arrantzako nazioarteko azoka
EXPOCONSUMO/EXPOVACACIONES	apirila	Kontsumo-ondasunen, kontsumitzaileen eta turismo eta aisialdiaren azoka
CREAMODA	apirila	Moda Diseinuko XXII. Lehiaketa
FORO EUROPEO DE ENERGÍA RENOVABLE	ekaina	EUROPAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN FOROA
SUBCONTRATACIÓN	iraila	Azpikontrazioaren eta enpresen arteko lankidetzaren nazioarteko azoka
TRASMET / AUTOMATIZACIÓN	iraila	Burdingintzaren, makineriaren, galdaketako osagarrien eta automatizazio nazioarteko azoka
FOCCUS BILBAO-ALIMENT Y GASTRONOMIA	urria	Sukaldaritzari eta elikadurari buruzko azoka profesionala
NAGUSI	urria	Adinekoentzako aisialdi, zerbitzu eta jardueren azoka.
EXPONATUR	urria	Naturaren eta abenturaren azoka
EXPOBODAS	urria	Ezkontza eta jaunartzeetarako erakusketa
SALON DE BISUTERIA	urria	Bitxien, oparien eta moda-osagarrien azoka
ALGUSTO	abendua	Sukaldaritzaren eta elikaduraren topalekua

*Iturria: Bilbao Exhibition Centre 2009*

Cluster sektorialak	
AERONAUTIKA	HEGAN – EAEko Aeronautikako eta Espazioko Clusterra. ( <a href="http://www.hegan.com">www.hegan.com</a> )
AUTOMOZIOA	ACICAE – EAEko Ibilgailu Industria eta Osagaien Cluster Taldea. ( <a href="http://www.acicae.es">www.acicae.es</a> )
IKUS-ENTZUNEZKOAK	EIKEN - EAEko Ikus-entzunezkoaren Clusterra.
EZAGUTZA	Enpresa Kudeaketari buruzko Ezagutzaren Cluster Elkartea. ( <a href="http://www.clusterconocimiento.com">www.clusterconocimiento.com</a> ) ( <a href="http://www.portaldelestion.com">www.portaldelestion.com</a> )
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK	ACEDE. EAEko Etxetresna elektrikoaren Cluster Taldea. ( <a href="http://www.acede.es">www.acede.es</a> )
ELEKTRONIKA, INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK	GAIA. EAEko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea. ( <a href="http://www.gaia.es">www.gaia.es</a> )
ENERGIA	Energiaren Cluster Elkartea. ( <a href="http://www.clusterenergia.com">www.clusterenergia.com</a> )
ITSAS INDUSTRIA	EUSKAL HERRIKO ITSAS FOROA. EAEko itsas industria sustatzeko elkartea. ( <a href="http://www.foromaritimovasco.com">www.foromaritimovasco.com</a> )
MAKINA-ERREMINTA	AFM. Espainiako Makina-Erreminten Ekoizleen Elkartea. ( <a href="http://www.afm.es">www.afm.es</a> )
INGURUMENA	ACLIMA. EAEko Ingurumen Industrien Cluster Elkartea. ( <a href="http://www.aclima.net">www.aclima.net</a> )
PAPERGINTZA	CLUSPAP. EAEko Papergintzaren Cluster Elkartea. ( <a href="http://www.clusterpapel.com">www.clusterpapel.com</a> )
PORTUA	UNIPORT BILBAO /Portuko Agintaritza. ( <a href="http://www.uniportbilbao.es">www.uniportbilbao.es</a> )

*Iturria: Guk egindakoa*

## Bilbao Exhibition Centre


2004az geroztik erakustazoka berria dauka Bilbok. Munduko joera abangoardistenei jarraiki eraikitako BECek kokapen ezin hobea du, eta horri esker azkar batean eta modu erosoan iritsi gaitzke hona Estatuko eta nazioarteko edozein lekutatik. Urtero 25 bat erakustazoka, ekitaldi eta erakusketa antolatzen dira bertan, eta horietako batzuk Europa osoko garrantzitsuenak dira.

BECi buruzko datu orokorrak	
Erakustokien azalera:	150.000 m <sup>2</sup>
Harrera eraikina:	
- Barruko sarbideak:	6.500 m <sup>2</sup>
- Biltzar-zentroa:	18.000 m <sup>2</sup>
- Bulegoak:	6.500 m <sup>2</sup>
Guztiantzako eremuak:	
- Ataria eta jatetxeak:	41.500 m <sup>2</sup>
Salgaietarako bideak:	
- Kamioien zirkulazioa:	57.000 m <sup>2</sup>
Gune libreak (zona berdeak eta zoladuradun bideak):	100.000 m <sup>2</sup>
Aparkalekuak:	4.000 plaza
Iturria: BEC. <a href="http://www.bilbaoexhibitioncentre.com">http://www.bilbaoexhibitioncentre.com</a>	

## Inbertsioei Laguntzeko Panoramaren Ikuspegi Orokorra

SPRI, SA —Industria Sustatu eta Birmoldatzeko Sozietate Anonimoa— EAEk duen garapen-agentzia da eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dago. EAEko nahiz nazioarteko enpresen artean, gure erkidegoa inbertitzeko eta negozioak finkatzeko leku interesgarri gisa aurkeztea da SPRIren zeregin garrantzitsuenetakoa. Alor horretan esperientzia handia dauka, 25 urte eta gero. Finantza arloko laguntza publiko nahiz pribatu ugari eskuratzeko atea da, bertan finkatzeko proiektuak sustatzekoa eta oso eskaintza lehiakor eta erakargarria enpresentzat. EAEn erakunde publikoek laguntza ugari eman dituzte beti enpresa proiektuak garatzeko edo halakoei ekiteko, eta horri esker sustapen-sistema lehiakorra osatu da. Sistema horren barruan, laguntza hauek ematen dira industria, merkataritza eta turismo sektoreetan: inbertsioak egiteko eta enplegua sortzeko laguntzak; I+G-rako eta produktu berriak eta enpresa teknologikoak garatzeko laguntzak; nazioartera hedatzeko laguntzak; arrisku kapitaleko sozietateentzako laguntzak; industrialdeetan eta parke teknologikoetan finkatzeko aukerak, etab. Herri-mailan ere laguntza asko ematen dira (DEMA, BEAZ, Behargintza...) enpresak herrietan finkatzeko, administrazio-izapideekin, kokapenarekin eta finantzazio-iturriekin lagunduz, esate baterako. Informazio gehiago nahi izanez gero, SPRIIn eskatu : [info@spri.es](mailto:info@spri.es).

## Mediku kopurua 100.000 biztanleko



Iturria: Eurostat 2006 (mediku lizentziadunak)

Eustat 2006 (Elkaraoko kide diren medikuak)

## Osasun adierazleak

Establezimenduak	45
· Gaixotasun akutuak	30
· Egonaldi luze eta ertainak	5
· Psikiatrikoak	10
Oheak	8.049
Oheak, 1.000 biztanleko	3,81
Oheak, 100.000 biztanleko	381
Medikuak, 100.000 biztanleko	502

Iturria: EUSTAT 2006 eta guk eginda

## Kulturaren argazkia

Orkestra Sinfonikoa	2
Kultur jarduerak	
· Museoak	95
· Galeriak eta areto iraunkorrak	142
· Liburutegiak	269
· Zine-aretoak	218
· Antzokiak	17
· Argitaratutako liburuak (*)	2.283
Komunikazioa (hartzaileak) (*)	
· Irratia	57,7%
· Telebista	84,4%
· Egunkariak	50,2%
Kirolak	
· Kirol-instalazioak	3.218
· Kirol-federazio eta -elkartek	6.533

Iturria: Eustat. 2008ko eta (\*) 2007eko datuak.

## Elkarteen erregistroa

Kultura orokorra	8.608
· Musika, dantza, folklorea	1.243
· Abesbatzak	325
· Antzerkia	324
· Zinea eta bideoa	148
· Argazkilaritza	70
· Aisialdia	700
· Erregioetako etxeak	116
Kultura espezifikoa	1.087
· Zientzia	236
· Teknika	110
Sozio-ekonomia	2.788
Familia eta kontsumoa	687
Irakasleak	1.385
Gazteak	510
Auzokoak	977
Ongintza eta sorospena	927

Iturria: Eustat 2007

EAEk bere natur ingurunea ederki zaintzea lortu du, eta horrek nazioarteko onespena ekarri dio. Bestalde, gure erkidegoan oso bizi-maila ona daukagu, osasunari, hezkuntzari, etxebizitzari, aisialdiari, kirolari eta abarri dagokienez, eta, hortaz, bizitzeko leku ederra da gurea. 10.000 biztanletik gorako 40 udalerrri daude EAEn, txaletekin hasi eta azken aldiaren eraikitako familia bakarreko etxebizitzak arteko bizilekuez osatutako etxebizitza-parke zabala daukagu. 2003an, "Espainiako hiri osasungarriena" saria eskuratu zuen Bilbok, Pfizer Fundazioaren urteroko biltzarrean. Bertan azpimarratu zenez, bilbotarrak dira beren hiriarekin poztasun.-maila handiena dutenak.

EAEko delitu kopuruak ez du ia gorabeherarik izan joan deneko hamar urtean: 57 puntu inguruan egon da (1.000 biztanleko hasitako eginbideak). Espainiako Estatuko delinkuentzia-mailaren oso azpitik gaude, beraz (97 puntu, 2007an).

EAEn izen handiko nazioarteko ikastetxeak dauzkagu, esate baterako: Bilboko Amerikar Eskola (Delaware estatuan erregistratua), Bilboko Alemaniak Ikastetxea, Bilboko Frantses Ikastetxea, Irlandar Ahizpen Eskola (Mary Ward), Saint Patrick ikastetxea, Saint George ikastetxea, etab.

### Osasun-zerbitzuak

Osasun-zerbitzu publikoak Eusko Jaurlaritzak kudeatzen ditu, Osakidetzaren bitartez. Adituen arabera, Espainiako Estatu osoko osasun-arreta onena daukagu: 2008an aurrekontuaren %32,3 bideratu zen osasunera, medikuntza prebentiboan inoizko ahaleginik handiena eginez. Euskadi Informazioaren Gizartean proiektuarekin asko aurreratuko dugu, osasun-txartel elektronikoa zabalduko baita, teknologia berriak zuzenean gaixoen mesedetan erabiltzeko.

ONA txartel aurkeztu berriari esker, EAEko nahiz Espainiako osasun-sistemarekin eta beste administrazio publiko batzuekin (bai eta enpresa pribatuekin ere) egin beharreko izapideak egiteko soluzio teknologikoak bilduko dira txartel bakar batean. Berrikuntza-ildo horri jarraiki, probako proiektu bat garatzen ari dira orain, errezeta elektronikoak erabiltzen hasteko.

Bizi-itxaropena Europako batz bestekoa baino apur bat handiagoa da eta, bestetik, ebakuntzak egiteko itxaron-zerrendak 20 egunen azpitik dago. Eustaten datuen arabera (2006), alor desberdinez (emakumeez, adinekoek, ezinduez...) arduratzen diren gizarte-laguntzarako 2.600 zentro baino gehiago dauzkagu, ospitalez kanpoko 458 zentro eta 45 ospitale. Zentro horietan 20.700tik gora langilek egiten dute lan: 15.744 osasun-arloko profesionalak dira, eta horietatik 4.330, medikuak.

## Kultura eta Ohiturak

Euskaldunok lotura estua dugu gure natur ingurunearekin: itsasoak eta lurrak nortasun eta izaera berezia eman digute, gure ohituretan, kulturetan eta herri-kiroletan ikusten denez. Kirol horietako batzuek gure mugak gaintu dituzte, euskal pilotak, adibidez: Manilako eta Miamiko jai-alai frontoiak eta tamalez desagertua den La Habanako dira horren eredu. Herri-kirolekin jarraituz, idi-probak eta harri-jasotzaileak, aizkolariak eta traineruen estropadak nabarmentzen dira. Musikaren alorrean, abesbatzak eta koruak oso hedatuta daude gurean, eta, horiekin batera, bi orkestra sinfoniko ditugu EAEn. Orkestra horien kontzertuetan entzute handiko musikariek jotzen dute askotan. Ez ditugu ahaztu zinema, opera, jaza, etab.

Dantzak ere bizi-bizi jarraitzen du euskal gizartearen, gure nortasunaren ezaugarria baita. Gure dantzetan eguneroko lanak, adeitasunak eta maitasunak irudikatzen dira, bere kultura eta folklorea grina handiz gorde dituen herri honen izaera definituz. Nazioarteko entzutea duten artista ugari dauzkagu, sentsibilitate horren erakusgarri: Ainhoa Arteta, Igor Yebra eta Lucía Lacarra, esate baterako. 2007ko Vienako Urte Berriko Kontzertuko lehen dantzaria izan zen Lacarra. Bestalde, bitxi historiko erakargarri ugari daukagu: Erdi Aroko trikuharriak, haitzuloetako margoak eta cromlechak eta eliza gotiko, erromaniko eta Ernazimendukoak. Gure kultur azpiegiturak ere etengabe berritzen ari gara. Horren adibide dira Frank Gerhyren abangoardiako diseinua duen Bilbao Guggenheim museo ezagun eta entzutetsua eta 2013an Urdaibaiko erreserban egitekoa den museo berria; Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko egoitza den Kursaal jauregia eta Gasteizko Artium. Sorkuntzaren alorrean ondoko hauek nabarmentzen dira: Samaniego, Pío Baroja, Miguel de Unamuno, Blas de Otero, Gabriel Aresti, Ignacio Aldekoa, eta, oraintsu, Bernardo Atxaga, Unai Elorriaga, Lucía Etxebarria eta Espido Freire idazleak; Zuloaga, Zubiaurre anaiak eta José María Urcelay pintoreak; Maurice Ravel, Usandizaga, Arriaga, Iradier eta Guridi musikariak eta Chillida, Oteiza eta Basterretxea artista garaikideak, esate baterako.

## Turismoa

EAEk hamaika aukera turistiko eskaintzen du. Udan turista asko etortzen zaizkigu euskal kostaldera eta EAEko hiriburuetara, bertako kultur altxorak ikustera. Gure natur ingurunean, eskaintza zabal bezain erakargarria daukagu: 9 parke natural, biosferaren erreserba bat, 6 biotopo babestu eta neurri desberdinetako 44 hondartza, gure 250 km-ko itsasertzean. 2008ko irailean, 334 landetxe zeuden EAEn, 3.467 plazarekin; 410 hotel, 24.857 plazarekin, eta 21 kanpin, 8.745 plazarekin.

3.900etik gora jatetxe ditugu EAEn, eta bazter guztietan ezagutzen da gure sukaldaritza bikaina. Mundu osoan ezagutzen diren sukaldari ospetsuak ditugu gurean. Akelarreko Pedro Subijanak, Juan Mari Arzakek eta Martin Berasateguik, adibidez, sukaldaritza-munduko sari nagusia eskuratu dute: Michelin-en hiru izarrek. Izar bana dute beste sukaldari hauek: Zuberoako Hilario Arbelaitez, Etxanobeko Fernando Canalesek, Azurmendiko Eneko Atxak, Zortzikoko Daniel Garcíak, Andra Mariko Roberto Asúak, Zaldiaraneko Patxi Eceizak eta, 2008ko abenduaz geroztik, Boroa jatetxeko Javier Garcíak. Sukaldari horiekin guztiekin batera, hedabideetan izugarrizko oihartzuna duena Karlos Arguiñano daukagu, belaunaldi berriko sukaldariei bidea erakusten: Guggenheim jatetxeko Josean Martínez Alijari, Gaminizeko Aitor Elizegiri eta Mugaritzeko Andoni Luis Adurizi, besteak beste.

Sukaldaritzarekin jarraituz, 2008ko urrian Dublinen egindako Munduko XX. Gazta Txapelketan (World Cheese Awards) Idiazabalgo gaztak 28 domina eskuratu zituen, Euskal Herriko eskulangintza bikainaren adierazgarri.

Bestalde, itsas turismoak hazkunde handia izan du Getxoko kaian geldialdia egiten duten luxuzko gurutzontziei esker. 2008an, Getxoko kirol-kaiak 40.000 turista jaso zituen 40 itsasontzitan. Getxon egiten duten geldialdian Guggenheim museoa, Urdaibaiko erreserba eta Arabako upeltegiak ikustera joateko aprobeztatzen dute turistek. Queen Elizabeth II, Black Prince, Sea Princess eta Millenium itsasontzi ospetsuek Bilbon egiten dute beren geldialdietako bat.

## Aisialdia eta Kirolak

Nahi beste kirol egiteko aukera daukagu gure erkidegoan, adibidez: mendia, txangoak, eskalada, delta-hegaldiak, motorrik gabeko hegaldiak, surfa, bela, igeriketa, golfa, tenisa, eskubaloia, errugbia, futbola, saskibaloia, etab. 6.500dik gora kirol-elkarte eta -klub daude EAEn, 3.218 kirol-instalazio, 322 tenis-pista, 12 golf-zelai, 18 kirol-portu, 4.100 amarra-leku ingururekin, etab. Munduko Surf Txapelketaren egoitzetako bat da Mundaka (Billabong Pro), urtero-urtero. Mendian Juanito Oartzabal, Alberto Iñurategi eta Edurne Pasaban nabarmentzen dira: munduan zortzi milako gehien (22) igo dituen mendizalea da Oartzabal, Lurreko hamalau tontorrek igo dituen hamalau mendizaleetako bat da Iñurategi, eta munduan zortzi milako gehien (hamaika) igo dituen emakumeetako bat da Pasaban, Austriako Gerlinde Kaltenbrunner-ekin eta Italiako Nives Meroni-ekin batera. Euskal pilota gure tradizio errotuenetakoa da, bere modalitate desberdinekin: esku-pilota, pala, erremontea, zesta-punta, trinketa, xarea... Txirrindularitzan, Euskaltel-Euskadi izenez nazioarteko pelotoian dabilen txirrindulari taldea dago, eta txirrindulari ospetsuak ere badira, esate baterako: Haimar Zubeldia, Igor Antón, Mikel Astarloza eta Samuel Sánchez, Olinpiar Jokoetako txapelduna. Txirrindularitzako munduko txapeldunak ere badauzkagu: Igor Astarloa (ibilbideko txirrindularitzako munduko txapelduna 2003an), Abraham Olano (ibilbideko txirrindularitzako munduko txapelduna, 1995ean eta 1998an) eta Joane Somarriba (Italiako bi Giro, Frantziako hiru Tour eta, 2003an, munduko txapelduna, erlojupeko modalitatean).

2008an Beijing-en egindako Olinpiar Jokoetan, EAEko kirolariek hiru domina irabazi zituzten (Iker Martínez-ek eta Xabi Fernández-ek bat belan, Leire Olaberriak beste bat txirrindularitzan eta Iker Romerok eta Jon Belaustegik hirugarrena eskubaloian). Horrez gain hamar diploma eskuratu zituzten, kirol desberdinetan, eta irabazleen artean Almudena Cid nabarmentzen da, lau final olinpikotan egon den gimnasta bakarra izan delako. Joko paralinpikoetan, berriz, EAEko kirolariek 8 domina eta 5 diploma irabazi dituzte.



### Euskal Natur Ingurunea

#### PARKE NATURALAK

Valderejo	Araba
Izki	Araba
Gorbeia	Bizkaia
Urkiola	Bizkaia
Pagoeta	Gipuzkoa
Armañón	Bizkaia
Aralar	Gipuzkoa
Aizkorri-Aratz	Gipuzkoa - Araba
Aiako-Harria	Gipuzkoa

#### BIOSFERAREN ERRESERBAK

Urdaibai	Bizkaia
BIOTOPO BABES GUNEAK	
Laguardia	Araba
Iñurritza	Gipuzkoa
Río Leizarán	Gipuzkoa
Rasa Mareal de Deba y Zumaia	Gipuzkoa
San Juan de Gaztelugatze	Bizkaia
Itzina	Bizkaia




## ► Heziketa-zentroak

Lan-esku produktiboaren prestakuntza ona da EAeko enpresarearen ezaugarri indartsuenetakoa, eta pertsonak trebatzea, berriz, politika publikoen lehentasunetako bat. EAE da azken hamar urteotan hezkuntza-sistema utzi duten pertsonen artean goi-mailako tituludun portzentajerik handiena duen erkidegoa, Espainiako batez bestekoaren oso gainetik.

Hezkuntza derrigorrezkoa da 5-16 urte bitartekoentzat. Hamasei urteak bete ondoren lanbide bat ikasi edo unibertsitatera joan nahi dutenentzat ere eskaintza zabala daukagu, eta lanbide-heziketak pisu handia du gurean. Horrez gain, EAEn nazioarteko ikastetxe ugari dago (ikus Bizi-kalitateari buruzko atala).

### Unibertsitateak

**Goi Mailako Ikasketak:** EAEn 4 unibertsitate daude: 25 fakultate edo eskola, goi-mailako 5 eskola tekniko eta 22 unibertsitate-ikastegi, publiko zein pribatuak. 70.000 ikasletik gora dabilta unibertsitatean ikasten, EAEn dugun espezialitate eskaintza zabalean. Epe luzeko nahiz ertaineko ikasketak egin daitezke gurean, gizarte aurreratuen eta enpresa modernoek beharrei ederki erantzuteko egokituta dauden EAeko unibertsitateetan.



**Eskolatzetasa. Adinaren arabera (%)**  
(Adin-talde bakoitzaren ikasleen eta biztanleen arteko erlazioa)

	3 urte	17 urte	20 urte
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA</b>	<b>101</b>	<b>97</b>	<b>73</b>
ALEMANIA	82	92	54
FINLANDIA	40	96	50
FRANTZIA	99	92	52
ESPAINIAKO ESTATUA	96	83	51
HOLANDA	0	92	63
ITALIA	97	83	44
PORTUGAL	63	73	44
ERRESUMA BATUA	80	72	39
SUEDIA	82	98	44
EB27	48	54	32

Iturria: EUROSTAT 2006

**Unibertsitate-ikasketak**  
**Enprekin lotutako espezialitateak**

	33.240	1. zikloko ikasketak	26.632
<b>2. zikloko ikasketak</b>			
Arkitektura	1.541	Enpresa ikasketak	4.011
Telekomunikazio ingeniarietza	962	Gizarte-hezkuntza	1.517
Informatika ingeniarietza	1.443	Maisutza	5.671
Industria ingeniarietza	3.024	Erizaintza	1.163
Kimika ingeniarietza	575	Dietetika eta giza elikadura	302
Enpresen administrazio eta zuzendaritza	5.161	Lan-harremanak	478
Biologia zientziak	731	Turismoa	789
Ikus-entzunezko komunikazioa	450	Gizarte-lana	861
Zuzenbidea	2.797	Beste diplomatura batzuk	41
Ekonomia zientziak	987	Arkitektura teknikoak	291
Fisika zientziak	310	Ingeniarietza teknikoak, telekomunikazioak	589
Geografia	106	Ingeniarietza teknikoak, industria-diseinua	340
Geografia eta historia	12	Ingeniarietza teknikoak, kudeaketarako informatika	1.466
Geologia zientziak	250	Ingeniarietza teknikoak, sistemen informatika	841
Matematika zientziak	245	Ingeniarietza teknikoak, herrilanak	591
Kazetaritza	1.149	Ingeniarietza teknikoak, topografia	320
Publizitatea eta harreman publikoak	570	Industria ingeniarietza teknikoak	6.567
Kimika zientziak	872	Ingeniarietza teknikoak, meatzeen ustiapena	521
Itzulpen-gintza eta interpretazioa	304	Itsasketa zibila	273
Beste espezialitate batzuk	11.751		
		<b>2. zikloko ikasketak</b>	<b>3.412</b>
<b>3. zikloko ikasketak (doktoretza)</b>	<b>2.386</b>	Materialen ingeniarietza	86
		Industria-automatika eta -elektronikako ingeniarietza	380
		Ingeniarietza elektronikoa	89
		Industria-antolaketako ingeniarietza	1.056
		Biokimika	102
		Elikagaien zientzia eta teknologia	138
		Aktuarietza eta finantza zientziak	90
<b>GUZTIRA</b>	<b>65.670</b>	2. zikloko beste ikasketak batzuk	1.471

Iturria: EUSTAT, Irakaskuntzako estatistika 2006 - 2007

**Goi-mailako ikasketak, 18 urtetik aurrera**

1. Bi ziklotan banatuta daude lehen eta bigarren zikloko titulu ofizialak eskuratzeko ikasketak. Ikasketak planak unibertsitateek prestatzen eta onartzen dituzte, titulu bakoitzari dagozkion arauekin eta arau orokorrekin bat etorriz. Ikasketak fakultateetan, goi-mailako eskola teknikoetan eta unibertsitate-eskoletan ematen dira (azken horietan lehenbiziko zikloak bakarrik).

- Lehen zikloak bi edo hiru ikasturte irauten du, eta titulu hauek eskuratzen dira: diplomatura, maisutza, arkitektura teknikoak edo ingeniarietza teknikoak.

- Bigarren zikloak bi ikasturte irauten du (batzuetan hiru), eta titulu hauek eskuratzen dira: lizentziatura, arkitektura edo ingeniarietza.

- Hirugarren zikloa egiteko lizentziatura, arkitektura edo ingeniarietza titulua behar da. Dokto-re titulua eskuratzeko, dokto-re-tza-programa egin behar da, bi ikasturte gutxienez, eta, horren ondoren, dokto-re-tza-tesia aurkeztu eta onartua izan behar du.

2.- Unibertsitatearen titulu propioak:  
Unibertsitateak nahi bezala antolatzen ditu. Diploma eta titulu hauen izenak ez datoz bat titulu ofizialen izenekin. Ez dute ondorio akademiko osorik, eta ez dute ematen titulu ofizialek lanerako ematen duten ahalmenik ematen.

**Euskal Herriko Unibertsitatea:**

Bilboko Unibertsitatearen (1936) ondorengoa da, titulartasun publikoa du, eta Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan ditu kanpusak. Ikasketa asko egin daitezke: medikuntza, zientziak, arte ederrak, zuzenbidea, ekonomia-eta enpresa-zientziak, industria-ingeniaritza.

**Mondragón Unibertsitatea:**

Unibertsitate pribatu hau 1943an hasi zen eskolak ematen. Mondragon Corporación Cooperativa (MCC) industria-taldearen baitan kokatuta dago, eta kooperatiba-erregimena duen Europako lehen unibertsitatea da. Hiru fakultate edo campus ditu: Goi Mailako Eskola Politeknikoa, Enpresa Zientzien Fakultatea eta Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Horrez gain, bi ikerketa-zentro ere ditu: Ikerlan eta Ideko. ISO 9001 kalitate ziurtagiria lortu zuen Estatuko lehen unibertsitatea izan zen (1995ean).

**Deustuko Unibertsitatea:**

Pribatua da eta Jesusen Konpainia ordena erlijiosoak zuzentzen du. Bilbon, Donostian eta Gasteizen ditu campusak. Diplomaturak, lizentziaturak, gradu-ondokoak eta hirugarren zikloko ikasketak egin daitezke bertan. Zuzenbide fakultatea izan da, betidanik, unibertsitate horren eskaintzen arteko ezagunena; bertatik atera dira Estatu osoko legegile eta legelari asko. “La Comercial” izenaz ezagutzen den Enpresa fakultatea ere oso ezaguna da.

**Nafarroako Unibertsitatea:**

Industria Ingeniaritza, Materialen Ingeniaritza, Automatika eta Ingeniaritza Elektronikoa, eta Industria Antolaketarako Ingeniaritza irakasten dira unibertsitate honetako Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskolan. Ingeniaritzaz gain, Idazkaritzako eta Goi Mailako Institutua dago. Donostian daude bi campusak.

## Kontratu motak iraupenaren arabera

### 1. KONTRATU MUGAGABEA

Hitzarmen honetan, kontratuari ez zaio mugaegunik jartzen zerbitzuak emateko.

### 2. KONTRATU MUGAGABE HOBARIDUNAK

Iraupen mugagabeko kontratuak dira.  
Langileen talde hauetako batean daude inskribatuta: emakume langabetuak, 16 eta 30 urte bitarteko gazteak, sei hilabetez edo gehiagoz etengabe langabetuak, 45 urte baino helduagoak. Kasu bakoitzarentzat hobari desberdinak ematen dira.

#### 2.1. Finko etenduna

Honakoa hitzartuko da finko etendunak diren lanak gauzatzeko eta enpresaren jarduera bolumenaren data jakinetan errepikatzen ez direnean. Adierazitako taldeetan dauden langileen kontratuek hobariak jasoko dituzte.

### 3. PRESTAKUNTZA KONTRATUAK

#### 3.1. Prestakuntzarako kontratua

Praktiketako kontratua izateko beharrezko titulurik ez daukatenak, eta hamasei urte baino nagusiagoak eta hogeita bat urte baino gazteagoak diren langileekin gauzatu ahal izango dira. Adin muga 24ra zabalduko da kasu honetan: Lantegi Eskola eta Lanbide Eskolen Programetan ikasle-langile gisa doazen langabetuekin hitzartzen bada kontratua. Goreneko adin muga ez da aplikatuko hurrengo kasuetan: langabetuak Lantegi Eskoletan ikasle gisa daudenean edo ezgaituak direnean. Iraupena ezin da izan sei hilabete baino laburragoa edo bi urte baino luzeagoa. Bi luzapen ere hitzartu ahal dira eta beren iraupenak sei hilabetekoa izan behar du gutxienez. Prestakuntza teorikora zuzendutako denborak, gutxienez, Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako lanaldiaren %15 izan behar du. Probaldia ezin da izan 2 hilabete baino luzeagoa.

#### 3.2. Praktiketako kontratua

Kontratu honi esker, lanbide titulua duten langileek behar duten praktika lortu ahal dute, ikasketa amaitu osteko lau urteetan. Epe hori 6 urtera luzatuko da langilea ezgaitua bada. Gutxienezko iraupena 6 hilabetekoa izango da, eta gehienekoa 2 urtekoa. Probaldia ezin da hilabete bat baino luzeagoa izan goi mailako titulua duten langileei egindako kontratuetan. Hitzarmen Kolektiboak ezarriko du ordainsaria. Lehen urtean ezin da izan %60 baino txikiagoa, eta bigarren urtean %75 baino txikiagoa.

### 4. IRAUPEN MUGATUKO KONTRATUAK

#### 4.1. Obra kontratua

Kontratu honen helburua hauexek dira: lanak eta zerbitzuak gauzatea berezko autonomia eta funtsarekin lantegiaren jardueraren barruan. Hasiera batean, horiek gauzatzeko iraupena ez da ziurra, nahiz eta denboran mugatua izan.

#### 4.2. Aldi baterako kontratua ekoizpen gorabeherengatik

Merkatuaren beharrak asetzeko hitzartzen da, baita zereginak pilotzen direnean edo eskaera gehiegi daudenean ere, nahiz eta enpresaren jarduera normala izan. Gehieneko iraupena 6 hilabetekoa izango da 12 hilabeteko epearen barruan. Hala ere, Hitzarmen Kolektiboak luzatu dezake muga hori. Kontratua amaitzen denean kalte ordainketa bat dago, soldatako 8 egun lan egindako urte bakoitzeko.

#### 4.3. Bitarteko kontratua

Kontratu honen helburua hauexek dira: lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak ordezkatzeko, honako hauek betez: araudia, Hitzarmen Kolektiboa, banako akordioa edo aldi batean lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesuan edo promozioan bere behin betiko estaldurarako. Langabetuekin egiten badira Gizarte Segurantzari egindako hobaria enpresa-kuotaren %100 izango da, betiere lan kontratuak hurrengo epe hauetan bertan behera duten langileak ordezkatzeko denean: amatasuneko atsedena, emakume langilearen arriskua haurdunaldian, adopzioa edo adopzio aurreko edo behin betiko harrera.

### 5. TXANDAKO KONTRATUA

Lan bulegoan langabetu gisa izena eman duen langilearekin egiten da, baita enpresarekin lanaldi mugatuko kontratua egin duen langilearekin ere enpresa horretan erretiro partziala izango duen langilea ordezkatzeko Azken horrekin hitzartzen den lanaldi mugatuko kontratuarekin batera gauzatu da. Iraupena mugagabea izango da, edo ordezkaturako langileari erretiroa lortzeko falta zaion denbora berdina. Adin horretara heldutakoan, erretiro partziala duen langileak enpresan jarraitzen badu, iraupen mugatua duen txandako kontratua luzatu ahal izango da urtero alderdiek hala erabakitzen badute. Dena den, ordezkaturako langilea erabateko erretiroa hartu eta urte horri dagokion epea amaitzen denean iraungiko da kontratua.

### 6. ORDEZKATZEKO LAN KONTRATUA

#### ERRETIROKO ADINA AURRERATZEAGATIK

Kontratu honen helburua hauexek dira: langabetuak kontratatzea erretiroko adina 65 urtetik 64 urtera aurreratu duten langileak ordezkatzeko. Gutxienezko iraupena urtebetekoa izango da.

### Kontratazio-formulak

Ekonomia moderno bati dagokion legez, EAEk formula ugari ditu bai kontratatzeke bai laguntzak emateko, aukeratutako modalitatearen arabera. Ondorengo lerroetako eskemen bidez, aurretiko ezagutza eman nahi dugu. Kontratuatarako laguntza publikoei buruzko informazioa eskuratzeko hona jo: [info@spri.es](mailto:info@spri.es).

### Bitartekaritza-enpresak

Eusko Jaurlaritzak hainbat zerbitzu dauzka langileen kontratazioa bideratzeko.

- **Egailan, S.A.:** (Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Akziokako Baltzu Publikoa Sozietate Publikoa) enplegu eta prestakuntza arloko politika aktiboak kudeatzeaz arduratzen da, haiek hobeto zabaldu, gauzatu eta ebaluatzeke.
- **Langai:** Eusko Jaurlaritzak abian jarritako enplegu-zerbitzua da, eta Egailan arduratzen da hura kudeatzeaz. Zerbitzu hau lanpostuak bete nahi dituzten enpresei eta lan bila dabiltzanei zuzentzen zaie.
- **Lanbide.net:** Egailan-ek kudeatzen duen interneteko atari horrek zerbitzu hauek eskaintzen ditu: auto-enplegua, lanerako eskari eta eskaintzak, lan-aholkularitza, estatistikak, prestakuntza (ikastaroak, bekak, masterrak...).
- **Hobetuz:** etengabeko lanerako prestakuntza ematen duen erakundea da. Enpresa txiki eta ertainekin jarduten du, gehienbat, eta etengabeko prestakuntza bultzatzen du. Etengabeko prestakuntza kudeatzeaz eta zuzentzeaz arduratzen da, eta enpresa, langile nahiz ikastetxeen artean

etengabeko prestakuntzaren inguruko interesa sustatzen du, halaber, jarduera horrek ahalik eta hedapen zein eraginkortasun handiena lortzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarriz. Aipatutako eragileez gain, aldi baterako lanerako enpresak dauzkagu, hala nola: Adecco, Alta Gestión, Brok. Tel, B&T Asociados, Denbolan, Ercisa, Flexiplan, Manpower, Laborman, Lan Egin, People, Randstad, Vedior, etab.

### Sindikatuena Ordezkaritza

SonSindikatu ugari daude EAEn, batzuk sektore guztietan jarduten dute, eta beste batzuk, berriz, jarduera gutxi batzuetan.

- **ELA:** Hego Euskal Herriko esparru ekonomiko guztietan jarduten du.
- **LAB:** Euskal Herriko esparru ekonomiko guztietan egiten du lan.
- **CCOO eta UGT:** Espainiako Estatuan indar handiena duten bi sindikatuak dira, eta Hego Euskal Herriko ekonomiako sektore guztietan dituzte ordezkaririk. Horiez gain, badira arlo zehatzetan diharduten beste sindikatu batzuk: EHNE, nekazariena; SATSE, erizaintzakoa; EILAS, irakaskuntzan; ERNE, Ertzaintzan, etab.

**Lan Harremanen Kontseilua,** ugazaben eta sindikatu handien ordezkaririk biltzen dituen erakundea da. Horien arteko topaketa-organoa den heinean, bien arteko hitzarmen orokorrak eta negoziazio kolektibo zehatzak bideratzen ditu. Horrekin batera, lan-munduko gaiei buruzko proposamen bateratuak zuzentzen dizkio Eusko Jaurlaritzari.

<b>Merkantziak garraiatzeko, errepidean ematen den denbora</b>			
<b>IBILBIDEA</b>	<b>IRAUPENA</b>	<b>IBILBIDEA</b>	<b>IRAUPENA</b>
Bilbo – Baiona	2 ordu	Bilbo - Perpinya	6 ordu
Bilbo – Bordele	4 ordu	Bilbo – Paris	11 ordu
Bilbo – Frankfurt	17 ordu	Bilbo – Milan	12 ordu
Bilbo – Madril	4 ordu	Bilbo – Bartzelona	6 ordu
<i>Iturria: Uniport Bilbao</i>			

<b>Bilboko portua. 2008ko trafikoa (urtarrila-iraila)</b>			
<b>Merkantziak, eremu geografikoen arabera (tonak)</b>	<b>KARGA</b>	<b>DESKARGA</b>	<b>TOTAL</b>
<b>KABOTAJEA GUZTIRA</b>	<b>1.556.069</b>	<b>421.352</b>	<b>1.977.421</b>
AFRIKA ATLANTIKOA	297.695	1.413.517	1.711.212
AFRIKA INDIKOA	69.977	162.898	232.875
AFRIKA MEDITERRANEOA	72.506	362.537	435.043
AMERIKA IPAR ATLANTIKOA	1.510.554	1.386.705	2.897.259
AMERIKA HEGO ATLANTIKOA	287.107	1.644.693	1.931.800
AMERIKA IPAR PAZIFIKOA	48.812	3.289	52.101
AMERIKA HEGO PAZIFIKOA	96.279	218.110	314.389
ASIA INDIKOA	265.278	2.255.853	2.521.131
ASIA MEDITERRANEOA	117.989	106.958	224.947
ASIA PAZIFIKOA	191.585	1.153.471	1.345.056
ERDIALDEKO AMERIKA ETA KARIBE	286.685	1.211.539	1.498.224
EZEZAGUNA	36.727	970	37.697
ESKANDINAVIA	35.955	292.370	328.325
EUROPA ATLANTIKOA, GAINERAKOA	989.158	5.754.966	6.744.124
EUROPA MEDITERRANEOA	583.296	760.895	1.344.191
BRITAINIAR UHARTEAK	1.063.970	1.321.917	2.385.887
ITSAS BALTIKOA	151.388	2.947.193	3.098.581
OZEANIA	29.640	48.139	77.779
<b>TRAFIKOA GUZTIRA</b>	<b>7.690.670</b>	<b>21.467.372</b>	<b>29.158.042</b>
<i>Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza</i>			

<b>Bilbotik munduko beste portuetara iristeko behar den denbora</b>			
<b>IBILBIDEA</b>	<b>IRAUPENA</b>	<b>IBILBIDEA</b>	<b>IRAUPENA</b>
Londres	1 egun	Kanada	12-14 egun
Rotterdam	1 egun	Estatu Batuak (golkoa)	16-18 egun
Afrikako iparraldea	4-5 egun	Estatu Batuak (iparraldea)	14-16 egun
Afrikako hegoaldea	17-20 egun	Erdialdeko Amerika	12-15 egun
<i>Iturria: Uniport Bilbao</i>			
		Hego Amerika	12-17 egun

### Errepideak

EAEk errepide, trenbide nahiz hegazkin bidezko komunikazio eta garraio azpiegitura modernoa dauka; horri esker lotura erraz eta arinak ditu bai Estatuarekin bai Europarekin. Lisboa-Stockholm nazioarteko ardatzaren erdi-erdian dago, eta E-5, E-70 (A-8) eta E-80 (A-68) errepideen bidez komunikatzen da Europako gainerako herrialdeekin. 4.250 kilometro baino gehiagoz osaturiko autopista, autobide, bide bikoitzeko errepide, errepide nagusi eta eskualdeko errepide sarea du, hiri eta herrietara joateko sarbide moderno eta funtzionalekin. Errepide hauek nabarmentzen dira, bereziki: Bilbo-Behobia autopista (A8), Bilbo-Zaragoza autopista (A68), Kantauriko autobidea, Leitzarango autobidea eta N-1 errepidea.


### Trenbideak

EAEk RENFE bidezko lotura du Espainiako Estatuko hiriburu garrantzitsuenekin. Lisboa, Oporto, eta Paris nahiz Frantziako eta Europako hiri garrantzitsuenekin lotura zuzena dago tenez, egunero,, Irun-Hendaiatik abiatzen den Frantziako trenbidearen bidez. EAEko hiri eta udalerri garrantzitsuenek tren-geltokiak daukate. Bestalde, erkidegoaren barruan, FEVEren (Espainiako Bide Estuko Trenbideak) sareak Kantauriko itsasertzarekin lotzen gaitu, eta Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen EuskoTrenak, berriz, EAEko hiri garrantzitsuenetako aldirietako eta inguruko herrietako tren-zerbitzua ematen du.


EAEko trenbide-azpiegiturak 600 kilometro inguru dauzka.

Horrekin batera, Bilboko metroa daukagu. Hauxe da munduko metrorik modernoenetakoa. Metroari esker, Bilboko metropoli-areako bidaiariak modu erraz eta arinean ibili daitezke batetik bestera, kalitate maila handiarekin. Azkenik, Bilboko tranbia eta 2008an martxan jarritako Gasteizko tranbiak dauzkagu. Gaur egun, inoizko trenbide-proiekturik handienean murgilduta dago EAE: euskal “Y” delakoan, hain zuzen ere. Abiadura handiko tren-zerbitzu horrek ordu erdi eskasean lotuko ditu EAEko hiriburuak, azken belaunaldiko trenak erabiliz, eta nazioarteko bide luzeko lineekin bat egingo du: Frantziako TGVrekin Irunen, esate baterako. Horri esker, EAEko bidaiariak bost ordu inguru beharko dituzte Parisera iristeko, eta handik azkar batean iritsiko dira Europako hiri nagusietara.

Errepideen mapa



Trenbideen mapa



**Euskal Aireportuen Nazioarteko Helburuak**

Bonn
Brusela
Casablanca (Karga)
Kolonia
Dublin
Dusseldorf
East Midlands (Karga)
Frankfurt
Lieja (Karga)
Lisboa
Londres
Luton (Karga)
Milan
Munich
Oslo
Paris
Praga
Stuttgart
Tunis



## Itsas Portuak

Bilboko eta Pasaiako portuak dira gure herriko merkataritza arloko bi portu garrantzitsuenak, zalantzarik gabe. Portu hauetako instalazioetan produktu asko eta asko sartzen eta ateratzen dira egunero: petrolio-produktuak, merkantzia orokorrak, ibilgailuak eta burdingintzako ondasunak, XXI. mendeari aurre egiteko, aldaketa sakonak izan dituzte bi portuek, kudeaketa nahiz itxura aldetik. Bilboko eta Pasaiako portuetan egiten dira Estatu-mailako esportazio eta inportazio jarduerarik gehienak, urtean 44 milioi tona inguruko trafikoa daukate bien artean. Bilboko portuak munduan zehar dabilzan ontzirik handienak hartu ditzake petrolio-ontzientzat duen terminalean (32 metroko sarkura artekoa). Edukiontzia garraiatzen dituzten ontzien kasuan, 21 metro arteko sarkura dute terminalek eta merkantzia orokorarentzat 14 metrora arteko kaiak daude. Portuko Agintaritzak, azken 15 urteetan eginiko handitze-lanei esker, 3.390.000 m<sup>2</sup>-ko kaia eskaintzen du eta atrakatzeko 17.000 metro lineal. Bilboko portuko itsas sektoreak 300 destino baino gehiago eskaintzen ditu Bilbotik abiatuta, edukiontzitan garraiatutako merkantziarako eta karga arruntetarako, eta era guztietako logistika-zerbitzu osagarriak ematen ditu. Lurretik, berriz, merkantziak Iberiar penintsulako hiri askotaraino eraman daitezke tren bidez, eta errepidea erabili nahi izanez gero, azkenik, autobidea portutik bertatik abiatzen da ([www.uniportbilbao.es](http://www.uniportbilbao.es)). Bilbokoaz gain, neurri desberdinetako beste hamazazpi portu txikiago daukagu: itsas garraioko portuak, arrantzakoak nahiz kirol-portuak. Portu horietako gehienetan instalazioak handitzeko lanak egin dira, atrakatzeko kaiak handitu dira... merkataritzako nahiz aisialdiko beharrei erantzuteko.

Pasaiako portuari dagokionez, datozen urteotan nabarmen handitu dira portuko instalazioak, kanpo-portu berria eraikiko dute eta errepide nahiz trenbide bidezko sarbideak berrituko dira.

Horrekin batera, EAE (Bilbo) eta Britainiar uharteak (Porstmouth) 36 ordutan lotzen dituen Pride of Bilbao ferrya daukagu. 22 korapiloko abiadura hartzen du ferryak, eta 2.500 pertsona, 600 auto eta 62 kamioirako edukiera dauka.

## Aireportuak

EAE n Estatu osoko aireportu-azpiegiturarik zabalenetakoa daukagu. Hiru hiriburuetan daude aireportuak: Loiukoa Bilbon, Forondakoa Gasteizen eta Hondarribikoa Donostian. Bakoitza arlo batean espezializatu da eta elkar osatzen dute hiruek. Instalazio horietan 4.927.678 bidaiari eta 88.078 hegazkin ibili ziren 2007an. Hiru aireportuotan linea hauek jarduten dute normalean: Aer Lingus, Air Berlin, Air Europa, Air France, Alitalia, Brussels Airlines, Clickair, EasyJet, Iberia, Lufthansa, Portugalia Airlines, Spanair eta Vueling Airlines. Aire bidezko trafikoa etengabe handitu da azken urteotan, eta etorkizunera egokituz joateko, aireportuak handitzeko eta hobetzeko inbertsio-programa garrantzitsua garatu da. Bilbo-Loiuko aireportuak nazioarteko maila du. Kantauriar itsasertzeko bidaiariaren garraiorako aireportu garrantzitsuena da, eta Santiago Calatrava arkitekto ezagunak diseinatu zuen terminal berria. Gasteizko aireportuak "lehenengo maila berezia" kategoria du eta ondasun galkorren Europako bigarren terminal onena da, Frankfurtekoaren atzetik. Era berean, DHL konpainiak, Iberiar penintsulatik eta Afrika iparraldetik datozen aire-kargak bateratzeko gune gisa erabiltzen du Gasteizko aireportua. 2007. urtean 31.400 Tm-ko bolumena lortu zuen.

Merkantzien zentro integratuak		
ZENTROA	AZALERA	MARTXAN DAUDEN INSTALAZIOAK
APARCABISA - Trapaga (Bizkaia)	201.067	Biltegi hotza. Biltegi arruntak. Bulegoak.
ZIERBENA - Zierbena (Bizkaia)	67.000	Aduana esparrua. Zamalanetako kaia Merkantzia arriskutsuetarako aparkalekua.
ZAISA - Irun (Gipuzkoa)	200.000	Biltegi hotza. Biltegi arrunta. Aduana esparrua. Saltegiak. Ibilgailu astunentzako aparkalekua.
CTV - JUNDIZ - Vitoria/Gasteiz (Araba)	715.584	Biltegi hotza. Aduana esparrua. Ibilgailuentzako tailerrak. Bulegoak. Zerbitzuak.
ARASUR - Rivabellosa (Araba)	2.000.000	Nabeak salgai eta alokatzeko, trenbiderako lotura zuzenarekin. Hotela. Ibilgailu astunentzako aparkalekua.
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.183.651</b>	



Merkataritza-sozietateen eraketa	
Urtea	Enpresa kopurua
2003	4.597
2004	4.635
2005	4.891
2006	5.595
2007	5.990
2008 (irailera arte)	3.449

Iturria: [www.informa.es](http://www.informa.es)

## Logistika-zentroak

EAEtik 400.000 tona merkantzia inguru garraiatzen dira egunero: %67 errepidez, %30 itsasoz eta gainerakoak hegazkinez eta trenez. Gure kokapen estrategikoaren eta ekonomiaren industrializazio-mailaren ondorioz, trafiko gehientsuen duen guneetako bat da EAE. Merkantziak garraiatu eta banatzeko zentroetan Estatu-mailako eta nazioarteko merkaturatze-kate logistikorako jarduerak biltzen dira. Gasteizko Garraio Zentroa (CTV), Zaisa eta Aparcabisa dira hiru zentro intermodalak, eta hirurak ere garraiorako gune garrantzitsuen ondoan (autopista, trenbide, aireportu eta portuen ondoan) daude. Hiru zentro horietatik banaketaren kudeaketa integratua eta biltegiratzearen administrazio bikaina egiten da. Bertako instalazio modernoetan, zamak biltegiratu, zatikatu eta trinkotzeko prestazioak daude; barne-koordinazioa eta truke intermodala egin daiteke bertan eta zamak jaso, banatu eta haiei buruzko informazioa zehazteko zentroa dira, halaber. 2006az geroztik ARASUR plataforma logistikoa gehitu zaio hirukoteari. Plataforma hori Rivabellosan (Araba) dago, Miranda de Ebroko errepideko gurutzagunearen ondoan, A-68 eta A-1 errepideek eta Madril-Bilbo trenbideak bat egiten duten lekuan. EAEko lau zentro horiek Europako Garraio Plataformen Taldea (“Europlatforms”) osatzen dute, Espainiako, Italiako eta Frantziako beste zentro batzuekin batera. Zentro logistiko horiez gain, Gasteizko aireportua daukagu. Zama-lanetarako eta produktu galkorrak biltegiratzeko instalazio bikainak dauzka, merkantziak garraiatzeko eta banatzeko baldintza zein hobekak eskainiz. Horri esker, Europa, Afrika, Amerika eta Asia arteko merkantzia-trukerako ezinbesteko lotunea bihurtu da EAE.

Bestalde, Aquitaine-Euskadi plataforma logistikoa (PLAE) azpimarratu behar dugu. Bi erregiootako logistika-sarea bultzatzeko sortu zen plataforma, mendeetan zehar Europarako berezko igarobidea osatu baitute biek ere. Horrekin batera, proiektuak landuko dituzte batera zenbait arlotan: ikerkuntzan, teknologian, turismoan eta Europako gaur egungo ingurune sozio-ekonomikoan asko indartzen ari diren beste sektore batzuetan, aeronautikan, adibidez. PLAE 2004an sortu zen, eta EAEko eta Akitaniako logistika eta garraio sektoreekin lotura zuzena duten 15 enpresa biltzen ditu. Jorratuko dituzten ekintzen artean, Atlantikoko trenbide-autopista nabarmentzen da. Egitasmo horren bidez, kamioien garraioa murriztu nahi da, tren bereziak erabiliz horretarako. Horrela, Irun eta Biriato arteko errepide-sarearen saturazioa arinduko litzateke, egunero-egunero 10.000 ibilgailu astun igarotzen baitira hortik. Era berean, abiadura handiko euskal “Y” izeneko sarea bultzatzeko konpromisoa dauka PLAEk. Lehenbiziko lineak Tours-ekin eta Orléans-ekin lotuko ditu Gasteiz. Dena den, asmorik handiena itsas autopistak edo Short Sea Shipping (SSS) direlakoak suspertzea da. Trenarekin bezala, SSSrekin ere EAEren eta Akitaniaren arteko mugako igarobideak arindu nahi dira, errepideko eta itsasoko garraioak uztartuz horretarako. Oraindik ikertzen ari dira proiektu estrategiko hori, baina Bilbo eta Dunkerque lotuko litzuke itsasoz.

PLAEk berebiziko garrantzia du iraunkortasunean oinarritutako garraio egokia lortzeko estrategiak prestatzeko garaian, Bilboko eta Pasaiako portuek —EAEko aldean— eta Baionakoak eta Bordelekoak —Akitaniako aldean— duten presentzia aktiboan ikusten denez. Era berean, EAEko lau zentro intermodalek (Zaisa, Aparcabisa, CTV eta Arasur), Akitaniako bostek (Bordele-Freteko garraio-zentroa, Irun-Hendaia trenbide-sarea eta Bordeleko, Hourcadoko eta Baiona-Mugerreko geltoki intermodalak) ere egitasmoan parte hartzen dute. Azkenik, Uniport Bilbao eta Bilboko eta Gasteizko aireportuak sustatzeko sozietateak (Bilbaoir eta VIA, hurrenez hurren) dira kide berriak hartzeko prest dagoen plataforma honetako azken kideak.

## Industria-azpiegitura

EAEko ekonomiak hazkunde bizia izan du azken bost urteetan. Hazkunde horrek Espainiako eta Europako batez bestekoa gainditu ditu eta, ondorioz, lanpostu eta enpresa berri ugari sortu dira. Garapen potentzial horri erantzuteko, enpresak bertan finkatzeko aukera eskaintza zabala du EAEk. Industria-lurren eskaintza zabala daukagu EAEko eremu estrategikoetan, era guztietako enpresak finkatzeko bertan, eta Spirilurrek (Lurzoru Eraikuntza Industriaren Sustapenerako Sozietatea), Industria Lurrak programaren bidez, industria-lurrak erosteko baldintza ekonomiko onak eskaintzen ditu eta kudeaketa-lanak errazten ditu. Eskualde gehienetan daukagu industria-multzo txikiez osatutako industrialdeak. Era guztietako enpresak hartzen dituzte industrialde horiek eta beharrezko zerbitzu guztiak ematen dituzte ber-bertan.

## ► Inbertsioei eta Eragiketei Loturiko Kostuak

# 10.

### Lokalizazio-kostuak

Zenbait jarduera ekonomikoaren kokapen-kostuak eta metro koadroko prezioa zehartu ditugu hurrengo lerroetan. Batez besteko prezioak dira, eta aldatu egiten dira herrien eta erabilgarri dauden lursailen arabera.

### Hornidura-kostuak

**Energia Elektrikoa:** Elektrizitate-tarifak araututa daude EAEko lurralde osoan, 2008ko uztailaren 1az geroztik, eta hainbat enpresa hornitzaile daude.

**Gas Naturala:** Gas naturaleko tarifa bakarra dago, eta tarifa hori araututa dago 2008ko urriaren 10az geroztik. 1980an ez zen ia gas naturalik kontsumitzen etxebizitzetan, industrian eta merkataritzan. Gaur egun, ordea, energiaren azken kontsumoaren %25 hartzen du gas naturalak, eta energia-eskari osoaren %42. EAEk 3.700 km-ko oinarritzko sarea dauka lurralde osoan zehar, gasa garraiatu eta banatzeko. Sare hori Espainiako Estatuaren saretik elikatzen da hegoaldean. Sare horrek Libiako eta Aljeriako gas naturala darama, eta Haron barrena sartzen da Araban. Iparraldean, berriz, Bilboko portutik sartzen da gasa, Bahía de

Bizkaia Gas-eko birgasifikatzeko eta ziklo konbinatuko lantegien bidez. Gas natural likidotua (GNL) inportatzen da terminal horretara. 2003an hasi zen lanean, eta 140.000 m<sup>3</sup>-ko edukira arteko metano-ontzientzako zamalanetarako kaia du, 150.000 m<sup>3</sup>-ko bi biltegitratze-tanga eta 800.000 Nm<sup>3</sup>/h-ko birgasifikazio-ahalmena. Irunen barrena, Frantziako gasbide-sarearekin lotzeko hodiak orain ari dira jartzen.

Eusko Jaurlaritzak, energia-baliabideak dibertsifikatzeko politikari jarraiki, Frantziako gas-azpiegiturarekin lotu nahi du EAE, eta horretarako harremanak dauzka proiektuan parte hartzen duten eragile guztiekin (Gaz du Sud-Oest eta ELF) "Gaviota" izeneko gas naturaleko meatokia 1970eko hamarkada amaieran aurkitu zuten Bermeoko (Bizkaia) itsasertzaren aurrean, eta gasa biltzeko gordailu estrategikoa da gaur egun. 2.480 milioi Nm<sup>3</sup>-ko edukiera du guztira, eta 780 milioi Nm<sup>3</sup> gas-eko bolumen erabilgarria. Espainiako Estatu osoko gas naturaleko erreserba-sistema estrategikorik handiena da.

**Urak:** Tarifak aldatu egiten dira, leku batetik bestera. Eremu esanguratsuenetako prezioen adibide batzuk jaso ditugu hemen:

## EAE. Higiezin merkatua

<b>Extebizitzak</b>		<b>Hipotekak</b>	
Guztira	969.235	Extebizitza berrien batez besteko hipoteka	167.146 €
Jabetzakoak	%90,61	<b>Merkataritza-lokalak</b>	
Errentakoak	%9,39	Batez besteko prezioa, saltzeko	2.890,70 €/ eraikitako m2
Biztanleak/etxebizitzak erlazioa	1,91	Batez besteko prezioa, alokatzeko	18,07 €/ m2/hilab.
Familia anitzeko etxebizitza berrien batez besteko neurria	114 m2	<b>Bulegoak</b>	
Familia nitzeko etxebizitzaren logela kopurua	3	Batez besteko prezioa, saltzeko	3.486,08 €/ eraikitako m2
Familia anitzeko etxebizitza aske berriak alokatzeko prezioa	3.988,51 €/ eraikitako m2	Batez besteko prezioa, alokatzeko	18,88 €/ m2/hilab.
Familia anitzeko etxebizitza aske berriak alokatzeko prezioa	18,28 €/ m2/hilab.	<b>Industria-pabilioiak</b>	
Familia anitzeko etxebizitza aske berriak alokatzeko prezioa	16,59 €/ m2/hilab.	Batez besteko prezioa, saltzeko	840,49 €/ m2/construido
Extebizitza askeak eraikitzeko lurzoruen prezioa	1.979,58 €/m2 ondorlora	Batez besteko prezioa, alokatzeko	6,30 €/ m2/hilab.
Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzoruen prezioa	202,58 €/ m2 erabilgarri		

Iturria: Espainiako Higiezin Merkatuko Urtekari Estatistikoa (RR de Acuña & Ass. 2007)

## ADSL tarifak

	ABIADURA	ALTAREN PREZIOA	PREZIOA HILEKO
<b>ARRAKIS</b>	6 MB	Gratis	39,00 €
<b>ARSYS</b>	4 MB	Gratis	99,90 €
	8 MB	Gratis	129,90 €
<b>JAZZTEL</b>	20 MB	Gratis	50,00 €
<b>TELEFONICA</b>	6 MB	Gratis	39,90 €
<b>VODAFONE</b>	6 MB	Gratis	34,90 €
	12 MB	Gratis	39,90 €
<b>ONO</b>	6 MB	39 €	40,00 €
	12 MB	39 €	50,00 €
<b>EUSKALTEL</b>	6 MB	Gratis	39,00 €
	12 MB	Gratis	49,00 €
	24 MB	Gratis	75,00 €

Iturria: Guk osatua 2008

## Elektrizitate-tarifak

BEHE TENTISIOA	POTENTZIA ADIERAZLEA: /KW -hil	ENERGIA ADIERAZLEA: /KWH
Tarifa soziala, 3 kW arteko potentziarako	0,000000	0,109612
1.0 Orokorra, 1 kW arteko potentzia	0,388713	0,087373
2.0.1 Orokorra, 2,5 kW-tik beherako potentzia	1,621373	0,109612
2.0.2 Orokorra, 5 kW-tik beherako potentzia	1,634089	0,107994
2.0.3 Orokorra, 10 kW-tik beherako potentzia	1,642355	0,106888
3.0.1 Orokorra, 15 kW-tik beherako potentzia	1,752513	0,107338
3.0.2 Orokorra, 15 kW-tik gorako potentzia	1,988549	0,101941

GOI TENTISIOA	POTENTZIA ADIERAZLEA: /KW -hil	ENERGIA ADIERAZLEA: /KWH
G.4 Kontsumo handietarako	13,157700	0,015070
D.1 Orokorra, 36 kV-tik beherako potentzia	2,638657	0,066432
D.2 Orokorra, 36 kV-tik gorakoa eta 72,5 kV-tik beherakoa	2,490768	0,063374
D.3 Orokorra, 72,5 kV-tik gorakoa eta 145 kV-tik beherakoa	2,428498	0,061152
D.4 145 kV-tik gorakoa	2,350662	0,059484

Iturria: EVE (Energia Euskal Erakundea), Eusko Jaurlaritza 2008

## Gas naturalaren tarifak

APLIKAZIO-MUGAK

	TERMINO FINKOA ( /bezeroa) hilean	ALDAGAIA / kWh
Urteko kontsumoa 5.000 kWh edo gutxiago	2,56 €	0,059094
Urteko kontsumoa 5.000 kWh eta 50.000 kWh artekoa	5,72 €	0,051455
Urteko kontsumoa 50.000 kWh eta 100.000 kWh artekoa	44,17 €	0,042037
Urteko kontsumoa 100.000 kWh baino gehiago	65,77 €	0,039360

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritza 2008

## Ur- eta saneamendu-tarifak

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren tarifak		
1.- Etxeetako erabiltzaileak, etxerako ur beroko instalazio zentralizatuak barne:		
Ur-hornikuntzaren tarifak (hiru hilean behin)		
* Kuota finkoa		4,6030 €
* 100 m3-rainoko kontsumoen kuota aldakorra		0,3946 €/m3
* 100 m3 tik gorako kontsumoen kuota aldakorra		0,8632 €/m3
Saneamendu tarifak (hiru hilean behin)		
* 90 egunetik behera kuota finkoa		4,3482 €
* 100 m3-rainoko kontsumoen kuota aldakorra		0,3728 €/m3
* 100 m2-tik gorako kontsumoen kuota aldakorra		0,8154 €/m3
2.- Merkataritza- eta zerbitzu-estabenezimenduetan eta industriak eta suteen aurkako hartunek		
Ur-hornikuntzaren tarifak (hiru hilean behin):		
* 25 m3-ko gutxienekoa, kontsumoa edozein dela ere		16,9969 €
* Pasatzen den m3 bakoltzeko:		0,8632 €/m3
Saneamendu tarifak (hiru hilean behin)		
* 25 m3-ko gutxienekoa, kontsumoa edozein dela ere		16,0556 €
* Pasatzen den m3 bakoltzeko:		0,8154 €/m3
Gasteizko Udaleren ur-hornikuntzako tarifak		
A - Kuota finkoa (kontagailuaren arabera)		
Ur-hornikuntzaren tarifak (hiru hilean behin) + Arazketaren tarifak (hiru hilean behin)		
B - Kuota aldakorra		
1.- Etxeetako erabiltzaileak, etxerako ur beroko instalazio zentralizatuak barne:		
Ur-hornikuntzaren tarifak (hiru hilean behin):		
* 10 m3-rainoko kontsumoen kuota aldakorra		0,200 €/m3
* 11-42 m3 bitarteko kontsumoen kuota aldakorra		0,375 €/m3
* 43 m3-tik gorako kontsumoen kuota aldakorra		0,675 €/m3
Arazketaren tarifak (hiru hilean behin):		
* 10 m3-rainoko kontsumoen kuota aldakorra		0,150 €/m3
* 11-42 m3 bitarteko kontsumoen kuota aldakorra		0,180 €/m3
* 43 m3-tik gorako kontsumoen kuota aldakorra		0,385 €/m3
2.- Merkataritza- eta zerbitzu-estabenezimenduetan eta industriak eta suteen aurkako hartunek		
Ur-hornikuntzaren tarifak (hiru hilean behin):		
* Kuota aldakorra		0,675 €/m3
Arazketaren tarifak (hiru hilean behin):		
* Kuota aldakorra		0,385 €/m3
Donostiako Udaleren ur-hornikuntzako tarifak		
1.- Etxeko kontsumoa		
Ur-hornikuntzaren tarifak (hilean behin)		
* Kuota finkoa (kontagailuaren arabera)		16,06 € - 155,05 €
* Kuota aldakorra		0,3115 €/m3
2.- Erabilera profesional, merkataritza, industriako eta zerbitzuetako kontsumoa eta suteen aurkako ur-hartuneetakoak.		
Ur-hornikuntzaren tarifak (hilean behin)		
* Kuota finkoa (kontagailuaren arabera)		16,06 € - 155,05 €
* Kuota aldakorra		0,6808 €/m3

Iturria: Donostiako Udala 2008

Iturria: AMVISA, 2008ko tarifak

Iturria: Bilboko Ur Partzuergo, 2008ko tarifak

## Lan-kostuak

### Gizarte Segurantzza:

Honi atxikitako taulan zehaztutako kasuetan ikusten denez, enpresaren gehieneko karga %32,10 da, lanpostu bakoitzari dagokion ordainsari osotik. Langilearen zama, berriz, %6,35koa da. Zenbateko hori nominatik kendu eta Gizarte Segurantzaz sartzeko du enpresak hilero-hilero.

### Langileei egindako atxikipenak:

Enpresak atxikipen batzuk egin behar ditu soldatetan, urteko soldata gordinaren eta seme-alaba kopuruaren arabera.

### Soldatak:

Hauxe zen batez besteko soldata, 2008ean: 19,45 euro orduko eta 1.992,1 euro hileko zen. 2008rako gutxieneko soldata eguneko 20,00 eurotan finkatu da (600,00 euro hilean), eta ezin izango da, inola ere, urtean 8.400 euro baino txikiagoa izan. Zenbateko hori jarduera guztietarako da (nekazaritza, industria eta zerbitzuak) eta ezin da bereizketarik egin adinaren edo sexuaren arabera. Soldata gordinaren %30 inguru, Gizarte Segurantzarako kotizazioak izan ohi dira. Gutxieneko soldataren barruan dirutan egindako ordainketak eta espezietan egindakoak sartzeko dira.

## Garraio-kostuak

### Itsas Tarifak:

Bilboko Portuak 2008rako onartu dituen prezioak jaso ditugu hemen. Gainerako tarifak (hornigaiak, biltegiatzea, eraikinak...) Bilboko Portuaren web-orrian ([www.bilbaoport.es](http://www.bilbaoport.es)) aurkituko dituzue. Pasaiaiko Portuak ere zerbitzu horietako gehienak eskaintzen ditu, antzeko tarifekin.

### Aire-Tarifak:

Forondako (Gasteiz) tarifak zehazten dira hemen. Espainiako aireportu sarean (AENA) dago aireportu hori. Gainerako aireportuetako prezioen egitura ere oso antzekoa da, alderen bat egon litekeen arren.

### Lurreko Tarifak:

Zaila da garraio-kostuak zenbatzea, aldatu egiten baita destinoaren arabera. Destino hori EAEn edo EAetik kanpo egon, aldatu egiten dira kostuak, eta beste faktore batzuen ondorioz ere bai: erregaiak une horretan duen prezioa, aukeratutako bidea (autopista, autobia, errepide nagusia, eskualdeko errepidea edota herri-mailakoa).

<b>Gizarte Segurantzaren kuotak</b>			
<b>KONTZEPTUAK</b>	<b>ENPRESA (%)</b>	<b>LANGILEA (%)</b>	<b>GUZTIRA (%)</b>
Gertakizun arruntak	%23,60	%4,70	%28,30
Langabezia			
· Kontratu mugagabeak	%5,50	%1,55	%7,05
· Iraupen mugatuko kontratuak			
+ Lanaldi osoan	%6,70	%1,60	%8,30
+ Lanaldi partzialean	%7,70	%1,60	%9,30
Soldatak bermatzeko funtsa	%0,20		%0,20
Lanbide-heziketa	%0,60	%0,10	%0,70

*Iturria: Gizarte Segurantza. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. 2009*

<b>Bilboko Portuko tarifak. Bidaiariak, merkantziak eta edukiontzia</b>		
<b>BIDAIARIAK ETA IBILGAILUAK</b>	<b>Bakoitza</b>	
<b>Bidaiariak</b>		
· Bidaiari arruntak, garraiatu, ontziratu eta lurreratu		3,50 €
· Turismoa itsas bidaietako bidaiariak, ontziratu eta lurreratu		4,12 €
<b>Ibilgailuak</b>		
· Turismoak eta antzeko ibilgailuak		9,99 €
· Autobusak eta talde-garraiorako ibilgailuak		53,68 €
<b>MERKANTZIAK</b>		<b>Tonako</b>
1. taldea		0,4896 €
2. taldea		0,8466 €
3. taldea		1,3362 €
4. taldea		2,2440 €
5. taldea		3,1416 €
<b>EDUKIONTZIAK</b>	<b>Zamarekin</b>	<b>Hutsik</b>
Edukiontzia <=20' (plataformaduna)	34,58 €	3,12 €
Edukiontzia > 20' (plataformaduna)	56,56 €	6,24 €
Erremolkedun kamioia (errepide-trena)	91,14 €	9,36 €
Trakzio-burua		1,88 €
· < 6 metroko kutxa edo plataformadun kamioia	34,58 €	3,12 €
· < 12 metroko kutxa edo plataformadun kamioia	56,56 €	6,24 €

*Iturria: Portuko Agintzaritza. 2008 (<http://www.bilbaoport.es>)*

<b>Gasteizko aireportuko tarifak. Lurreratzea eta aparkalekua</b>		
<b>LURRERATZEA</b>	<b>EB-KO HERRIALDEAK</b>	<b>GAINERAKOAK</b>
< 10 tona	3,92 €	4,98 €
10 eta 100 tona artean	4,49 €	5,71 €
> 100 tona	5,05 €	6,41 €
<b>APARKALEKUA</b>		<b>Tonako</b>
< 2 tona		1,25 €
3 eta 10 tona artean		6,27 €
11 eta 100 tona artean		0,73 €
> 100 tona		0,81 €

*Iturria: Gasteizko aireportua. 2008 (<http://www.Via-vitoria-airport.com>)*

## Zerga-sistema eta Finantzazio-sistema

Ezaugarri Nagusiak

EAEko zerga- eta finantzazio-sistemak ezaugarri bereziak dauzka, foru-lurraldeen eskubide historikoen ondorioz.

Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarrian aipatzen da berezitasun hori, eta Autonomia Estatutuan zehazten da. Estatutuaren arabera, Espainiako Estatuaren eta EAeren arteko zerga eta finantza alorreko harremanak kontzertu ekonomikoetan eta itunetan oinarritutako foru-sistema tradizionalaren bidez arautu behar dira.

Gaur egungo Kontzertu Ekonomikoan (12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, 2002/05/24ko BOE), zerga-erlazioei buruzko xehetasunak I. kapituluaren agertzen dira, eta finantza-erlazioei buruzkoak II.ean.

2008ko irailean, EAEko Kontzertu Ekonomikoaren balioa berretsi zuen Luxenburgoko Auzitegiak, Eusko Jaurlaritzak EAEko zergak finkatzeko eskumen osoa duela esanez, nahiz eta zerga horiek Espainiakoekin bat ez etorri.

### **EAEko Zerga-sistema:**

Kontzertu Ekonomikoaren sistemaren arabera, EAEk bere zerga-erregimen berezia dauka, normalean Estatuetakoa zerga-administrazioek dituzten eskumenekin zergak arautu eta kudeatzeko. Horrek ez du esan nahi Kontzertuan bertan EAEko eta Espainiako Estatuakoa zerga-sistemek garapen harmonizatu izateko behar diren zerga-harmonizazioko araurik ez dutenik, noski.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako erakundeak dira EAEko zergen gaineko eskumenak dituztenak. Halere, Eusko Legebiltzarra da zergen koordinazio, harmonizazio eta lankidetzarako arauak onartzen dituenak.

Eskuduntza horri jarraiki, Legebiltzarrak 3/1989 Legea onartu zuen. Lege horrek printzipio horiek garatu eta Zerga Kideketarako Saila sortu zuen. Hiru aldundietako eta Jaurlaritzako ordezkariak osatzen dute Sail hori, eta EAEko hiru lurraldeetako zerga-erregimena koordinatu, harmonizatu eta bateratzeko printzipioak bultzatzeaz arduratzen da.

Zerga-sistema osatzen duten zerga guztiak lurraldeetako foru-ogasunek kudeatzen eta biltzen dituzte, Kontzertuko araudian finkatutako banaketa-baldintzei jarraiki.

Zergapetze zuzenari dagokionez, EAEk bere kasa arautzen ditu zerga batzuk: Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Ondareen eta Eskualdaketen gainekoa.

Era berean, Kontzertu Ekonomikoak foru-aldundien esku uzten du ez-egoiliarrei Errentaren gaineko Zerga ordainarazteko eskumena. Horretarako Espainiako Estatuakoa araudi bera aplikatu behar du, non eta ez-egoiliar horiek EAEn kokapen iraunkorra ez duten, halakoetan arauak ezartzeko eskumena baitute aldundiek, eta Sozietateen gaineko Zergan ezarritako arauak aplikatzen dituzte.

Zeharkako zergapetzeari dagokionez, bi zerga handien — Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak— harmonizazioa ia erabatekoa da, zerga horien ezaugarrien ondorioz, eta Estatuarekin ez ezik Europar Batasun osoarekin ere harmonizatuta daude. Kasu horretan, beraz, zerga kudeatzera mugatzen da aldundien eskumena. Zerga-bilketarako ahalmenean hirugarren zerga bat daukagu: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. Zerga hori EAEko erakundeek arautzen dute modu autonomoan.

Itundutako zerga horiek garrantzi handia dute EAEko zerga-politika osoan, diru asko biltzen baita haien bidez.

#### **EAEko finantzazio-sistema:**

Gure zerga-sistema osatzen duten zerga gehien-gehienak biltzeko dugun ahalmena da EAEko finantzazio-sistemaren ezaugarri nagusia. Bildutako diru horrekin Espainiako Estatuko gastuak ordaintzen laguntzen dugu, EAEko erakundeei oraindik transferitu ez zaizkion esparruetan. Kupo deritzo EAEk Estatuari ordaintzen dion zenbatekoari. Kontzertu Ekonomikoaren II. Atalean Espainiako Estatuko Administrazioarekiko Finantza Harremanak arautzen dira. Harreman horrek printzipio nagusi hauek betetzen ditu:

- 1.-EAEko erakundeek autonomia dute zergetan eta finantzazioan.
  - 2.-Elkartasuna errespetatu behar da.
  - 3.-Estatuarekin koordinatu eta lankidetzan jardun behar da, aurrekontu-egonkortasunerako.
  - 4.-EAEk Estatuari ordaindu behar dizkio gure erkidegoaren esku ez dauden kargak.
  - 5.-Toki-erakundeen finantzazioa zaindu beharra dago.
- Kupoa kalkulatzeko, bost urtetik behin eta lege baten bidez, kalkulu hori egiteko metodologia finkatu behar dela dio Kontzertu Ekonomikoak.
- Hala, 13/2002 Legeak (maiatzaren 23koa) 2002-2006 bosturtekorako kupoa zehazteko metodologia onartu zuen.

#### **Sozietateen gaineko Zerga**

Lurralde bakoitzeko Sozietateen gaineko Zerga arautzen duten arauak Foru Kode Zergan jasotzen dira. Aplikazio informatiko bat da kode hori, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zerga-araudiak bateratzen ditu.

#### **Definizioa eta konexio-puntuak Kontzertu Ekonomikoan**

Sozietateen gaineko Zerga zerga zuzena eta pertsonala da, eta sozietateen eta gainerako entitate juridikoen errenta zergapetzen du. Kontzertu Ekonomikoko lehen kapituluko 3. atalean (14-20. art.) aipatzen da zerga hori, eta araudi autonomoko zerga itundua dela esaten da bertan. Hortaz, lurralde historikoetako eskumenerako erakundeek mugarik gabe arautu dezakete zerga hau, Kontzertuan bertan finkatutako harmonizazio-printzipioak errespetatuz, betiere.

Zerga honi buruzko EAEko araudia helbide fiskala EAEn duten erakundeei aplikatzen zaie. Erakundeak aurreko ekitaldian egindako jardueren zenbateko osoa urteko 6 milioi euro baino gehiago bada, helbidea EAEn izateaz gain bertan egin behar ditu eragiketen %25 baino gehiago, Kontzertuan bertan zehaztutako baldintzetan. Zergak duen konexio-puntu horren ondorioz, erakundeek araudi bat edo bestea bete behar dute: foru-araudia edo Estatuko araudi komuna.

Ordainarazpenean ere konexio-puntu bat finkatzen du Kontzertuak. Zergak ordainaraztea foru-ogasunen eskumena da oso-osorik, sozietateek helbide fiskala EAEn izan eta aurreko urtean egindako eragiketen zenbateko osoak 6 milioi euroak gainditzen ez baditu, eragiketa horiek edozein lekutan eginda ere.

Zerga honetan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan bezalaxe, erakunde batek, araudi bakar bat aplikatuz, bere kitapenaren emaitza zerga-administrazio desberdinen artean banatzeko aukera ematen da. Hori egin daiteke zergapetutako egintza lurralde-eremu batean baino gehiagotan eginez gero. Erakunde batek bi esparrutan jardun eta 6 milioi eurotik gorako eragiketaz-zenbatekoa duenean erabili daiteke aukera hori. Kasu horretan, ekitaldian zehar lurralde bakoitzean egindako jardueren zenbatekoaren arabera ordainduko dira zergak batean eta bestean.

### **Sozietateen gaineko Zergaren ezaugarriak**

2007an, Sozietateen gaineko Zerga Arautzen duten foru-arauak zertxobait aldatzeko foru-arau bana onartu dute Arabak eta Bizkaiak: karga-tasa orokorra %32,6tik %28ra jaitsi dute eta enpresa txikiena %24an utzi dute.

Aurreko neurriekin batera, zerga-pizgarriak arrazionalizatu eta eguneratu dituzte, ahalik eta eraginkorrenak izan daitezten, eta zerga-gastua enpresen lehiakortasunerako funtsezkoa den jardueretan kontzentratu dute. Hauek dira jarduera horiek, besteak beste: ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa, ingurumena babestea eta hobetzea, energia-iturriak modu efizienteagoan erabiltzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako lan-munduratzeko laguntzea.

Azkenik, lotutako eragiketen eta ondare-sozietateen araudi berria onartu da. Aurrerantzean, merkatuko prezioetan egin beharko da balorazioa.

Nolanahi ere, hiru foru-arauek oso antzekoak izaten jarraitzen dute, eta desberdinak diren alderdi batzuk aurki zuzenduko dituzte, hiru lurralde historikoetako araudien artean harmonizazio-maila handiagoa lortuaz horrela.

Lurralde historiko bakoitzeko Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen araudian informazio zehatzagoa aurkituko duzue, baina, halere, hona hemen hiru arauon ezaugarri nagusiak, laburbilduta:

**1.- Zergapeko egitatea:** Subjektu pasibo batek lortutako errenta da zergapeko egitatea, errenta hori edozein iturri edo jatorritakoa dela ere.

**2.- Zerga-oinarria:** Zerga-oinarria kalkulatzeko, kontularitzako emaitza hartzen da. Emaitza hori zuzendu egiten da foru-arauan zehaztutako doikuntzak eginez eta, hala badagokio, minoratu egiten da aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboak konpentsatuz.

#### **2.1.- Amortizazioa.**

- Foru-arauetan amortizazio-taula erabilerraz eta praktikoa jasotzen da.
- Ondokoek amortizazio-askatasuna daukate, oro har: 600 €-tik beherako aleko balioa duten ibilgetu material eta ez-materialeko elementuek, enpresaren kutsadura murrizteko eta zuzentzeko erabilitako aktibo berriek eta kutsatutako lurrak garbitzeko erabilitako ibilgetu materialeko eta ez-materialeko elementuek.
- I+G-rako erabiltzen diren ibilgetu material eta ez-materialeko elementuek (eraikinak salbu) eta ibilgetu ez-material bezala aktibatutako I+G-ko gastuek amortizazio-askatasuna daukate.
- Merkataritzako Funtzak eta bestelako aktibo ez-materialek urteko funts eta aktibo horien zenbatekoaren bostena arte amortizatzea daukate.

## **2.2.- Baloratzeko arauak: moneta-zuzenketa:**

Ibilgetu material nahiz ez-materialeko ondare-elementuen eskualdaketak egitean lortutako errenten inflazioaren efektua ezabatzearen, gainbalioa zuzentzeko sistema erraz bat finkatu da.

## **2.3.- Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa:**

- Zerga-oinarri negatiboak aurreko eta ondorengo hamabost urteetako zerga-aldietako errenta positiboekin konpentsatu daitezke.

- Aparteko irabaziak berrinbertitzea.

- Ondorengoak zerga-oinarritik kanpo utzi daitezke:

Erakundearen aktibo finko material eta ez-materialak eskualdatzean lortutako irabaziak, ustiategi ekonomikoek lotuta badaude eta eskualdaketaren zenbatekoa aktibo finko berrietan inbertitzen bada.

Eskualdatzen dena balore-zorroa baldin bada, lortutako irabaziaren %60, eskuz aldatutako balioek gutxienez %5eko parte-hartzea ematen badute eta, gutxienez, duela urtebete edukiz gero.

- Berriz inbertitzeko epea berrinbertitzen den elementua eskuratu baino urtebete lehenagotik ondorengo hiru urtera bitartekoa izango da.

**3.- Likidazio-oinarria:** Zerga-oinarriari foru-arauan jasotako murrizketak aplikatzean ateratzen dena da likidazio-oinarria. Ezin izan da inoiz negatiboa izan.

**4.- Zerga-tasa:** Tasa orokorra: %28 (%32,6, Gipuzkoan).

## **5.- Kendariak**

### **5.1.- Aktibo finko materialetan inbertitzea sustatzeko kenkariak:**

- Aktibo finko material berrietan inbertitzeagatiko kenkariak: inbertitutako zenbatekoaren %10.

- Informazio- eta telekomunikazio-teknologiak sustatzeko kenkaria: inbertitutako zenbatekoaren eta izandako gastuen %10 (Gipuzkoan bakarrik).

- Kultur ondarea babesteko eta zabaltzeko jardueri dagokien kenkaria, eta zine-ekoizpenetan eta liburu-argitalpenetan egindako inbertsioei dagokiena:

- Kultur ondarea: egindako inbertsioen edo izandako gastuen zenbatekoaren %15.

- Zine-ekoizpenak: %20 ekoizlearentzat eta %5 ekoizle laguntzailearentzat.

- Liburu-argitalpena: liburuak argitaratzeko egindako inbertsioaren %5.

### **5.2.- Enpresen finantzazioa sustatzeko kenkariak:**

- Inbertsio produktiboetarako erreserba: %10eko kenkaria, erreserba berezi honetara egindako ekarpenengatik.

- Errenta aldakorreko baloreen erosketa: %5eko kenkaria, errenta aldakorreko baloreak erosteagatik (Gipuzkoan bakarrik).

### **5.3.- Jarduera jakin batzuk egitea sustatzeko kenkariak:**

- Ikerketa- eta garapen-jarduerak egiteagatiko kenkaria:

- Kontzeptu horregatik egindako gastuen %30, eta %50 aurreko bi urteetan batez bestekoaren gaineratik egindako gastuengatik.

- Ibilgetuko elementuetan (higiezinetan izan ezik) eta soilik jarduera hauetara lotutako lursailetan egindako inbertsioen %10.

- Teknologia berritzeko jarduerak egiteagatiko kenkaria:

- Kalitatea ziurtatzeko arauak betetzen direla dioen ziurtagiria eskuratzeko gastuen eta unibertsitateei eta erakunde jakin batzuei eskatutako proiektuen %15/20.

- Teknologia aurreratua ekoizti eta eskuratzeko prozesuen ingeniariari eta industria-diseinuari dagozkien gastuen %10/15.

-Ingurumena babestu eta hobetzeko eta energia-iturriak modu efizienteagoan erabiltzeko jarduerengatiko kenkaria:

-Teknologia Garbien eaeko Zerrendan jasotako ekipoetan egindako inbertsioen %30.

-Kutsatzen duen inpaktua murrizteko eta zuzentzeko jarduerari lotutako aktibo finko material berrietan egindako inbertsioen %15.

- Esportazio-jarduerengatiko kenkaria: esportazio-jarduera batzuetarako egindako inbertsioen %25 (Gipuzkoan bakarrik. Halere, Araban eta Bizkaian 2011ra arte kenkari hori aplikatzea dago, urte horretara arte murriztuz doazen ehuneko batzuen bidez. Urte horretatik aurrera indarririk gabe geldituko dira kenkari horiek).

- Lanbide-heziketako gastuengatiko kenkaria: enpresako langileen lanbide-heziketako gastuen %10 (%15 gehiago, gastua aurreko bi urteetako batez bestekoa baino handiago bada).

-Haur-hezkuntzako lehen zikloa emateko lokaletan egindako gastu eta inbertsioei dagokien kenkaria: inbertsioen eta izandako gastuen %10 (Gipuzkoan bakarrik).

- Enplegu-sistemako pentsio-planetara, enpresetako gizarte-aurreikuspeneko planetara, enpresetako gizarte-aurreikuspeneko tresna moduan diharduten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetara eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetara enpresak egindako ekarpenengatiko kenkariak: %10.

-Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetan enplegua sortzeagatiko kenkaria: 3.000 euro, kolektibo horien plantilla aurreko urteko ekitaldiko batez bestekoa handitzea eragiten duen pertsona/urteko, handikuntza hori bi urtean luzatuz gero.

-Gipuzkoan edonolako enplegua sortzeagatik aplikatzen da kenkaria, zenbateko hauetan:

-3.606,07 euro, lan-kontratu mugagabea dutenen plantilla aurreko urteko ekitaldiko batez bestekoa handitzea eragiten duen pertsona/urteko, handikuntza hori bi urtean luzatuz gero

-4.507,59 euro, lana banatzeko hitzarmena egonez gero.

-Aurreko zenbatekoez gain beste 3.005,06 euro, kontratatutakoa lan-munduratzeko zailtasun bereziak dituen kolektiboren batekoa izanez gero.

#### **6.- Enpresa ertain eta txikien erregimen berezia:**

Foru-arauaren bidez enpresa txiki eta ertainak bultzatu nahi dira, eta erregimen berezia finkatu da horretarako:

- Zerga-tipo berezia enpresa txikientzat: %24 (Gipuzkoan %30eko tasa aplikatzen zaio 0 eta 100.000 euro arteko likidazio-oinarriari, eta %32,5ekoa, gainerako likidazio-oinarriari).

- Enpresa txikiek amortizazio-askatasuna daukate, eta enpresa ertainen taulan finkatutako koefiziente gorenak 1,5ekin biderkatuta ateratzen den amortizazioa aplikatzen zaie.

- Energia berriztagarriak erabiltzeko inbertsioengatiko kenkaria: inbertsioen %15 (Gipuzkoan bakarrik).

## SOZIEATEEN GAINEKO ZERGAREN OINARRIZKO ESKEMA

### ZERGAPEKO EGITATEA

Subjektu pasiboak (helburu fiskala EAEn duten sozietateak eta, beren eragiketen zenbatekoak 6 milioi €-ak gaintuz gero, eragiketa horien %25 gutxienez EAEn egiten dutenak) edozein bidetatik lortutako errentak.

### ZERGA-OINARRIA

Zerga-oinarria kalkulatzeko, kontularitzako emaitza hartzen da. Emaitza hori zuzendu egiten da foru-arauan zehaztutako doikuntzak eginez eta, hala badagokio, minoratu egiten da aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboak konpentsatuz.

Amortizazioa:

- Foru-arauetan amortizazio-taula erabilerraz eta praktikoa jasotzen da.
- Ondokoek amortizazio-askatasuna daukate, oro har: 600 €-tik beherako aleko balioa duten ibilgetu material eta ez-materialeko elementuek, enpresaren kutsadura murrizteko eta zuzentzeko erabilitako aktibo berriek eta kutsatutako lurrak garbitzeko erabilitako ibilgetu materialeko eta ez-materialeko elementuek.
- I+G-rako erabiltzen diren ibilgetu material eta ez-materialeko elementuek (eraikinak salbu) eta ibilgetu ez-material bezala aktibatutako I+G-ko gastuek amortizazio-askatasuna daukate.
- Merkataritzako Funtzak eta bestelako aktibo ez-materialek urteko funts eta aktibo horien zenbatekoaren bostena arte amortizatzea daukate.

Baloratze arauak: moneta-zuzenketa:

- Ibilgetu material nahiz ez-materialeko ondare-elementuen eskualdaketak egitean lortutako errenten inflazioaren efektua ezabatzearen, gainbalioa zuzentzeko sistema erraz bat finkatu da.

Zerga-oinarri negatiboaren konpentsazioa:

- osabidezko pentsioak eta elikagaietarako urteko kuotak ordaintzeagatik,
- gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik,
- zergak batera ordaintzeagatik

### LIKIDAZIO-OINARRIA

Zerga-oinarriari foru-arauan jasotako murrizketak aplikatzean ateratzen dena da likidazio-oinarria. Ezin izan da inoiz negatiboa izan.

Tasa orokorra: 28%

Tasa berezia (enpresa txiki eta ertainak): 24%

### KUOTA OSOA

Kenkariak:

- Aktibo finko materialetan inbertitzea sustatzeko kenkariak
- Enpresen finantzazioa sustatzeko kenkariak
- Jarduera jakin batzuk egitea sustatzeko kenkariak (I+G; teknologia-berrikuntza, ingurumena, energia-aurrezpena, esportazioa, trebakuntza, enplegua sortzea, lana eta familia uztartzea)
- Kenkari horiek aldatu egin daitezke lurralde batetik bestera

### KITAPENAREN EMAITZA

## Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)

### Definizioa eta konexio-puntuak Kontzertu Ekonomikoan

BEZ zeharkako zerga bat da, kontsumoari aplikatzen zaio eta hiru eratako jarduerak zergapetzen ditu:

1. Enpresaburuek eta profesionalek emandako ondasun eta zerbitzuak
2. Eb barruan erositako ondasunak
3. Inportatutako ondasunak.

Araudi komuneko zerga itundutzat sailkatuta dago Kontzertu Ekonomikoaren barruan (ikus Kontzertu Ekonomikoko 26-29. artikulua). Zerga honek dituen ezaugarri berezien ondorioz, EAEn eta Espainiako Estatuaren artean adostean, zerga-administrazio bakoitzak zergak biltzeko duen ahalmenari begiratu zaie, EAEn erakundeek araupetzeko duten ahalmena zerga kudeatzeko zenbait alorretara mugatuta baitago.

Kontzertu Ekonomikoaren arabera, EAEn BEZak Estatuak finkatutako oinarritzko printzipio, funtsezko arau, zergapeko egitate, salbuespen, sortutako zerga, oinarri, tasa, tarifa eta kenkari berberak bete beharko ditu.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoek beren arau propioak dituzte BEZerako, baina Estatuaren berdin-berdinak dira, xehetasun hauetan izan ezik: ordaintzeko epeetan eta zerga-aitorpena eta ordainketa egiteko ereduetan.

Lurralde bakoitzeko BEZ arautzen duten arauak Foru Kode Zergan jasotzen dira. Aplikazio informatiko bat da kode hori, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zerga-araudiak bateratzen ditu.

Zerga honen ordainarazpenean dagoen konexio-puntuak, Sozietateen gaineko Zergan gertatzen zen bezalaxe, helbide fisika EAEn daukaten subjektu pasiboek bakarrik ordaintzen dituzte zergak foru-aldundietan, aurreko urtean egindako eragiketen zenbateko osoa 6 milioi eurotara iristen ez bada, eragiketa horiek edonon eginda ere.

Bestalde, erakunde batek, araudi bakarra aplikatuz, zerga-administrazio desberdinen artean banatu dezake bere kitapenaren emaitza, zergapetutako zergapeko egitatea lurralde-esparru batean baino gehiagotan gertatuz gero. Hori gertatzen da bi esparruetan diharduen erakunde batek 6 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa daukanean.

## Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

Lurralde bakoitzeko PFEZ arautzen duten arauak **Foru Kode Zergan** jasotzen dira. Aplikazio informatiko bat da kode hori, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zerga-araudiak bateratzen ditu.

## **Definicioa eta konexio-puntuak Kontzertu Ekonomikoan**

PFZE zerga zuzena eta pertsonala da, eta pertsona fisikoen errenta zergapetzen du. Kontzertu Ekonomikoan araudi autonomoko zerga itundua dela esaten da, eta zergapekoaren ohiko bizilekua da konexio-puntua. Beraz, zergapekoek EAEn duten ohiko bizilekuaren arabera dagokien lurraldeko foru-aldundiak eskatuko die zerga hau. Lehen kapituluko bigarren atalean arautzen da zerga hau, 6-13 bitarteko artikuluetan, biak barne.

## **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezaugarriak**

Zerga honek aldaketa sakona izan du 2007an, urtarrilaren 1ean araudi berria indarrean sartu zenez geroztik. Erreforma horri esker, EAEko lurralde historikoetako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergek harmonizazio handia lortu dute.

Zerga berriaren berrikuntzetako bat aurrezkietatik datozen errentek ordaindu beharreko zergen arteko desberdintasunak ezabatzea izan da. Aurrerantzean, tratamendu fiskal bera izango dute denek, eta zerga-tasa bera ordaindu beharko dute.

Zergapekoen errentak osagai hauek biltzen ditu: laneko etekinak, jarduera ekonomikoaren etekinak, kapital higiezin nahiz higigarriaren etekinak, ondarearen galdu-irabaziak eta errenta-egozpenak. Gainera, errenta batzuk Zerga honetatik salbuetsita daude.

Zerga-oinarria finkatzeko, bi errenta mota bereizten dira: orokorra eta aurrezkiena. Azken horretan sartzen dira etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak, kapital higigarriaren etekin gehienak eta ondare-elementuak eskualdatzean lortutako ondare-irabaziak. Gainerako guztia errenta orokorrean sartzen da.

Oro har, gastuak eta diru-sarrerak gastu eta diru-sarrera horiek sortu diren zerga-aldian egotzi behar dira.

Zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren oinarria kalkulatzeko, zerga-iturri bakoitzaren etekin osoak eta gastu kengarriak zenbatu behar dira, dagozkion tratamendu zehatzak aplikatu behar dira ondoren (laneko etekinei ezarri beharreko hobariak, erostean zuten balioa eguneratzea, ohiko etxebizitzan berrinbertitzea...), eta, azkenik, errenta mota desberdinak bateratu eta konpentsatu behar dira, aurrezkitxoak edo orokorrak diren arabera.

Zerga-oinarri orokorra lortutakoan, likidazio-oinarri orokorra kalkulatu da. Horretarako, ondorengoei dagozkien kenkariak aplikatu behar dira: osabidezko pentsioak eta elikagaietako urteko kuotak, gizarte-aurreikuspeneko sistemara egindako ekarpenak eta zergen ordainketa bateratua. Bestalde, aurrezkiaren likidazio-oinarria kalkulatzeko, aurrezkiaren zerga-oinarriari, halakorik badago, osabidezko pentsioei eta elikagaien urteko kuotei dagokien zenbatekoa kendu behar zaie.

Likidazio-oinarri orokorrari zerga-eskala aplikatu behar zaio, kuota osoa ateratzeko; aurrezkiaren likidazio-oinarriari, berriz, %18ko zerga-tasa bakarria aplikatzen zaio.

Zerga-eskala %23ko gutxieneko tasa marjinaletik errenta handienek ordaindu beharreko %45eko gehienezko tasa marjinalera arteko bost tartetan banatuta dago.

Kuota osoa kalkulatu ondoren, beharrezko kenkariak egiten zaizkio: kenkari orokorra, kenkari familiar eta pertsonalak (zergapekoaren ardurapean dauden ondorengoengatik, seme-alabentzako elikagaiak ordaintzeko urteko kuotengatik, zergapekoarekin bizi diren gurasoengatik, ezintasunagatik, adinagatik), ezintasuna duen pertsonaren ondare babestura egindako ekarpenei dagozkien kenkariak, ohiko etxebizitza erosteko egindako inbertsio eta finantzazioari dagokien kenkaria, ohiko etxebizitza alokatzeari dagokion kenkaria, jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak (inbertsioengatik eta bestelako jarduerengatik, langileek enpresan parte hartzeagatik, jarduera ekonomiko bati ekiteko inbertsioa egiteko kreditu-erakundeetan egindako gordailuengatik), dirua emateari dagozkion kenkariak eta bestelakoak (nazioarteko zergapetze bikoitza eta sindikatuen kuotak).

Kenkarien atalean, bi berrikuntza handi dauzkagu: batetik, auto-likidazio bakoitzari aplikatuko zaion kenkari orokorra; bestetik, ohiko etxebizitza erosteari dagokion kenkaria zergapeko bakoitzak aplikatuko du banaka, etxebizitzagatik egin beharrean.

Kuota osoari kenkarien zenbatekoa kenduta ateratzen den zenbatekoa kuota likidua da, eta horixe da zergapekoak ordaindu behar duena.

Azkenik, likidazioaren emaitza kuota likidoaren eta haren kontura egindako ordainketen arteko aldea da.

## PFEZ- REN OINARRIZKO ESKEMA

### ZERGAPEKOEN ERRENTA

- laneko etekinakjarduera,
- ekonomikoen etekinak,
- kapitalaren etekinak,
- ondarearen galdu-irabaziak,
- errenten egozpena

### ZERGA-OINARRIA

#### Zerga-oinarri orokorra

#### Aurrezkien zerga-oinarria

Gutxipenak:

- osabidezko pentsioak eta elikagaietarako urteko kuotak ordaintzeagatik,
- gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik,
- zergak batera ordaintzeagatik

Gutxipenak:

- osabidezko pentsioak eta elikagaietarako urteko kuotak ordaintzeagatik (zerga-oinarri orokorra gutxitu ondoren, aplikatu gabeko geldikinik gelditu bada)

### LIKIDAZIO-OINARRIA

#### Likidazio-oinarri orokorra

#### Aurrezkiaren likidazio-oinarria

Zerga-eskala  
aplikatzea

%18ko tasaren aplikazioa

### KUOTA OSOA

Kenkariak:

- kenkari orokorral,
- kenkari familiarak eta pertsonalak,
- ezintasunagatiko kenkariak,
- ohiko etxebizitzagatiko (erosia edo alokatua) kenkariak,
- jarduera ekonomikoak sustatzeagatiko kenkariak,
- dirua emateagatiko kenkariak, eta
- bestelako kenkariak: nazioarteko zergapetze bikoitza eta sindikatuak.

### KUOTA LIKIDOA

Konturako ordainketak (atxikipenak, kontura egindako diru-sarrerak eta ordainketa zatikatuak)

### KITAPENAREN EMAITZA

## ➤ Inbertsioetarako Laguntzak

# 11.-

### Inbertsioetarako aguntzak

EAEko erakundeek laguntza ugari ematen dituzte industriaren garapena sustatzeko. Adibide batzuk: inbertsioei laguntza ematea aurrerakin itzulgarrien bidez; interes baxuko maileguak, ordaintzeko baldintza onekin; errentamendu-kontratu onuragarriak kokaleku jakin batzuetan; pizgarri fiskalak; lanbide-heziketa; enplegua sortzeko enpresei laguntza ematea; I+G-ko proiektuak egiteko diru-laguntzak; enpresak teknologia-parkeetan finkatzea, etab.

Laguntza horiek erakunde desberdinek ematen dituzte: Europar Batasunak, Espainiako Estatuak, Eusko Jaurilaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek; ondorioz, programak ugariak bezain aberatsak dira. DELFOSen datu-basea kontsultatzea dago, web-orri honetan: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) eta [www.spri.net](http://www.spri.net). SPRIk (EAEko enpresak sustatzeko sozietateak) kasu bakoitzean zein programa aplikatu behar den ebaluatzen laguntzen du, erakunde bakoitzaren araudiaren arabera. Informazio gehiago eskuratzeko: [info@spri.es](mailto:info@spri.es).

### Sozietateen Eraketa

EAEEn 5.000 inguru merkataritza-sozietate eratzen dira urtean. Gehienak ere sozietate tradizionalak dira, erantzukizun mugatuko sozietateen forma juridikoa hartzen dutelako, baina gero eta gehiago dira ekonomia sozialarekin zerikusia duten forma juridikoak (kooperatibak eta lan-sozietateak) hartzen dituztenak. Halakoetan giza faktorea nagusitzen da kapitalaren gainetik, eta bazkide-langile askoren auto-enplegua bultzatzen da. Era honetako sozietateetan kezka hauek izaten dituzte: enpresen erantzukizun soziala, iraunkortasuna, ingurumena, langileak eta interes-taldeak errespetatzea, etab. Erakundeek enpresen erantzukizun sozialean (EES) oinarritutako ereduak ezartzeko laguntzak ematen dituzte, ardatz estrategiko berritatz hartu baitute hori (Xertatu:adi programak).

## Merkataritza Arloko Legeria

EAEEn sozietate bat eratzeko bete beharreko merkataritza arloko legeria Espainiako Estatu osoan dagoen berbera da, salbuespen batekin, kooperatiba-enpresek legeria berezia daukate-eta. Hala, bi eratako sozietateak eratu daitezke: zibilak eta merkataritza-sozietateak.

Sozietate zibilak (ondasun-erkidegoak) Kode Zibilaren arabera arautzen dira (392-406 eta 1.655-1.708 artikulua), ez dute berezko lege-nortasunik eta bazkideek (bi gutxienez) beren ondasunekin erantzuten diete sozietatearen zorrei. Hori dela eta, halakoak gero eta bakanagoak dira.

Merkataritza-sozietateak honela sailkatzen dira, bazkideen erantzukizun-mailaren arabera:

1. Erantzukizun mugagabekoak = sozietate erregular kolektiboak
2. Erantzukizun mugagabekoak = sozietate erregular kolektiboak
3. Ekarpenen arabera mugatutako erantzukizunekoak:
  - a. Sozietate mugatuak
  - b. Sozietate anonimoak
  - c. Lan-sozietateak (mugatuak nahiz anonimoak)
  - d. Kooperatiba-sozietateak

Erantzukizun mugagabeko eta mistoko sozietateak oso gutxi erabiltzen dira.

Sozietate mugatuak eratzeko (2/1995 Legea, martxoaren 23koa), eskritura publikoa aurkeztu behar da notarioan eta Merkataritza Erregistroan inskribatu behar da. 3.000 €-ko kapitala osatu behar da gutxienez, eta ez dago mugarik bazkide kopuruan. Bazkideen Batzar Nagusiak eta administratzaile bakarrak, edo zenbait administratzailek, edo Administrazio Kontseilu batek zuzentzen dute sozietatea. Sozietateen gaineko Zergako tasa orokorraren arabera ordaintzen dituzte zergak.

Sozietate anonimoak eratzeko (1564/1989 Legea, uztailaren 25ekoa), eskritura publikoa aurkeztu behar da

notarioan eta Merkataritza Erregistroan inskribatu behar da. 60.000 €-ko kapitala osatu behar da gutxienez, eta ez dago mugarik bazkide kopuruan. Bazkideen Batzar Nagusiak eta administratzaile bakarrak, edo zenbait administratzailek, edo Administrazio Kontseilu batek zuzentzen dute sozietatea. Sozietateen gaineko Zergako tasa orokorraren arabera ordaintzen dituzte zergak.

Lan-sozietateak (mugatuak nahiz anonimoak) eratzeko (4/1997 Legea, martxoaren 24koa), eskritura publikoa aurkeztu behar da notarioan eta Merkataritza Erregistroan inskribatu behar da, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Lan Sozietateen Erregistroan ere. 3.000 €-ko edo 60.000 €-ko kapitala osatu behar da gutxienez (mugatua edo anonimoa den arabera), eta hiru bazkide izan behar ditu gutxienez. Bazkide horietako bakoitzak ezin du sozietatearen kapitalaren herena baino gehiagoren titularrak izan. Gainera, kapitalaren gehiengoak kontratu mugagabeko bazkide-langileen jabetzakoa izan behar du. Zerga-salbuespen batzuk ditu (Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan), eta ekonomia sozialeko enpresentzako laguntza bereziak eskatzea dauka. Gainerako guztian, sozietate mugatu nahiz anonimoen legeria bete behar du.

Kooperatiba-sozietateak eratzeko (4/1993 Legea, ekainaren 24koa), eskritura publikoa aurkeztu behar da notarioan eta EAEko Kooperatiben Erregistroan inskribatu behar da. 3.000 €-ko kapitala osatu behar da gutxienez, eta hiru bazkide izan behar ditu gutxienez. Bazkide-langileek gehiengoa izan behar dute. Batzar Nagusiak eta administratzaile bakarrak edo Zuzendaritza Kontseiluak zuzentzen dituzte halako sozietateak. Zerga-salbuespen batzuk ditu (Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan), tasa berezi askoz ere murriztago baten arabera ordaintzen du Sozietateen gaineko Zerga, eta ekonomia sozialeko enpresentzako laguntza bereziak eskatzea dauka.

Aurreko legeaz gain EAEko Kooperatiba Txikiei buruzko Lege berria (6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa) daukagu orain. Bi eta hamar bazkide arteko kooperatibak arautzen

ditu lege horrek.

2007an, bestalde, Sozietate Profesionalen Legea sartu zen indarrean (2/2007 Legea, martxoaren 15ekoa). Jarduera profesionalak arautu nahi dira lege horren bidez, eta halako sozietateek beren funtsa galtzea eragozteko esparru berezia finkatu da. Dena den, lege berria ez da indarrean dauden arauetatik aldentzen, oinarritzko puntuetan.

## Ekonomia Sozialeko Enpresak

Lan-sozietateak eta kooperatibak sartzten dira ekonomia sozialeko enpresen multzoan. Hauek dira era horretako enpresen printzipio nagusiak:

erabaki-prozesu demokratikoak dituzte, "pertsona bat = boto bat", printzipio kooperatiboari jarraiki. Askorentzat horixe da printzipio garrantzitsua, erabakitzeo ahalmena demokratizatzen duelako, sektore pribatu kapitalistan egiten dutenaz bestela, han "akzio bat = boto bat" araua betetzen baita.

pertsonen eta lanaren nagusitasuna dute kapitalaren gainetik, zereginak banatzen. Irabaziak banatzeko bestelako logika dakar horrek, sozietatearen kapitalean parte-hartzearekin zerikusirik ez duena, eta kontra ere badagoena, ondorengo irizpide hauek erakusten dutenez: kooperatiben itzulkinaren printzipioa, ondare kolektiboaren eraketa, kapitalera mugatutako ordain-sariak edota irabaziak ez banatzeko araua,

irabazi-asmoa izan beharrean, kideei edo komunitate osoari zerbitzatu nahi zaio. Sozietate hauek egindako jarduera ekonomikoaren helburua pertsonen zerbitzu bat ematea da, ez irabazi bat lortzea. Irabaziak egon daitezke, noski, baina sozietatearen azken helburua lortzeko, hots, zerbitzu bat emateko, bitarteko bat besterik ez lirateke izango eta

autonomia kudeaketan. Printzipio horrek esparru publikoko erakundeetatik bereizten ditu bereziki.

Industria-jarduerak dira ekonomia sozialeko enpresetan jende gehien enplegatzen dutenak. Zerbitzuak, eraikuntza

eta nekazaritza datoz ondoren, hurrenez hurren. EAEn guztira 68.108 langile dira kooperatibetako kideak, eta 2.500dik gora kooperatiba eta lan-sozietateen kudeaketan parte hartzen dute.

EAEko ekonomia sozialaren enplegu-maila batez bestekoaren gainetik dago, eta zenbait eskualdetan, Gipuzkoan bereziki, horixe da enpresa-formula nagusia. Mondragón Corporación Cooperativa (MCC) da gure kooperatiben arteko handiena: EAEko enpresa-talde garrantzitsua da, eta Espainiako Estatuko talderik dibertsifikatuena.

54.500 langilek egiten dute lan EAEko kooperatibetan, honela banatuta: EAEko Kooperatiben Konfederazioa (675 enpresa, sei federaziotan banatuta); ERKIDEn lan elkartukoak daude (511 enpresa eta 33.152 langile, horietako 23.134 bazkideak); kreditu-kooperatibak (2 enpresa, 452 bulego eta 2.525 langile); irakaskuntzakoak (76 kooperatiba, 5.142 langile, 4.100dik gora irakasle eta 54.400 ikasle baino gehiago); Nekazaritzako Kooperatiben Federazioa (71 enpresa eta 621 langile); garraio-kooperatibak (6 enpresa eta 650 langile, horietako 581 bazkideak); eta Kontsumo Kooperatiben Federazioa, azkenik (9 enpresa eta 10.233 langile, horietatik 7.680 bazkideak). Kooperatiba-enpresa horiek guztiek 10.460 milioi euro inguruko fakturazioa sortzen dute guztira. EAEko kooperatibetako bazkideen %95 inguru hartzen ditu konfederazioak.

Lan-sozietate anonimoak, azkenik, oso hedatuta daude EAEn, industria-sektorean bereziki. ASLE (EAEko Lan Sozietate Anonimoen Elkarte) osatzen duten 300 enpresek 9.000 bazkide-langile enplegatzen dituzte, Espainiako Estatu osoan era honetako sozietateetan diharduten langile guztien %16.

SPRI-REN NAZIOARTEKO SAREA



## ➤ SPRIren Nazioarteko Sarea

# 12.

SPRIren nazioarteko sarea EAEko enpresek eskari handiena duten merkatuetan dago hedatuta, eta eragile hauek osatzen dute: SPRIren ordezkari-tza-bulegoek, Eusko Jaurlaritzak atzerrian dituen ordezkari-tzek eta industria-proiektuetan espezializatutako aholkulari-tza-bulego eta eragileek.

Helburua:

EAEko enpresei nazioarteko merkatuetan sartzen laguntzea, beste merkatu batzuetan duten presentzia areagotzeko jarduera guztietan babes-a eman-az.

Jarduerak:

- Atzerriko merkatuetan EAEko enpresen bazkide izan litezkeenak identifikatu, ebaluatu eta haiekin harremanetan jartzea.
- Bazkide horien artean interesgarrienak direnak ikustera joatea eta beharrezko bitartekari-tza-lanaz arduratzea.
- Enpresei aholkulari-tza ematea, sinatu beharreko hitzarmenak negoziatzean.

Nori zuzentzen zaio:

Beren jarduera EAEn garatzen duten edo garatu nahi duten enpresa guztiei.

SPRIren egitura egonkorrak (\*), EAEko enpresekin lan egiteko SPRIrekin hitzarmena duten kanpo-eragileek eta aholkularitza-bulego espezializatuek herrialde hauetan dauzkate bulegoak:

- |                           |               |                           |
|---------------------------|---------------|---------------------------|
| - AEB (*)                 | - Estonia     | - Luxenburgo              |
| - Alemania                | - Finlandia   | - Maroko                  |
| - Aljeria                 | - Frantzia    | - Mexiko (*)              |
| - Arabiar Emirerri Batuak | - Holanda     | - Norvegia                |
| - Argentina (*)           | - Hego Afrika | - Polonia (*)             |
| - Belgika                 | - Hego Korea  | - Portugal                |
| - Brasil (*)              | - Hungaria    | - Suedia                  |
| - Danimarka               | - India       | - Turkia (*)              |
| - Egipto                  | - Italia      | - Txekiar Errepublika (*) |
| - Erresuma Batea          | - Japonia     | - Txile (*)               |
| - Errumania               | - Kuba (*)    | - Txina (*)               |
| - Errusia                 | - Letonia     | - Venezuela (*)           |
| - Eslovakia (*)           | - Lituania    | - Vietnam                 |

SPRIk atzerrian dituen agenteen zerrenda eguneratua kontsultatzeko, hemen begiratu: [www.spri.es](http://www.spri.es)

